

**Lege zibilak:
Ondasun
higiezinak**

**Leyes civiles:
Bienes
inmuebles**

2. argitaraldia / 2.^a edición

Lege-testuak
Textos legales

Leyes civiles: bienes inmuebles

1. Ley sobre Propiedad Horizontal
2. Ley de Arrendamientos Urbanos
3. Ley sobre Derechos de Aprovechamiento por Turno
4. Ley de Arrendamientos Rústicos

2.^a edición

Lege zibilak: ondasun higiezinak

1. Jabetza Horizontalaren Legea
2. Hiri-errentamenduen Legea
3. Txandakako Aprobetxamendu-eskubideen Legea
4. Landa-errentamenduen Legea

2. argitaraldia

Leyes civiles: bienes inmuebles

1. Ley sobre Propiedad Horizontal
2. Ley de Arrendamientos Urbanos
3. Ley sobre Derechos de Aprovechamiento por Turno
4. Ley de Arrendamientos Rústicos

Lege zibilak: ondasun higiezinak

1. Jabetza Horizontalaren Legea
2. Hiri-errentamenduen Legea
3. Txandakako Aprobetxamendu-eskubideen Legea
4. Landa-errentamenduen Legea

Segunda edición
cerrada el 30 de junio de 2007

Bigarren argitaraldia,
2007ko ekainaren 30ean itxia

2007

Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Instituto Vasco de
Administración Pública
Herri Ardulararitza
Euskal Erakundea

Bilbao - Bilbo

Lan honek IVAP/HAEEn laguntza jaso du.

Eskubide guztiak erreserbaturik daude. Debehatuta dago, legearen arabera, argitalpen hau bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzaileen esanbidezko baimenik gabe.

- © Jatorrizko lege-testu guztien itzulpena eta jatorrizko aurkibide analitikoak: Aiora Aristondo, Arantza Etxebarria, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia eta IVAP/HAEEn Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
- © Bigarren argitaraldi honen egokitzzaileak: Andres Urrutia, Esther Urrutia, Jabier Arrieta
- © Lege-testu guztien itzulpena eta aurkibide analitikoak: Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua.
- © Lege-testu guztien itzulpena eta aurkibide analitikoak: IVAP/HAEEn Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Deustuko Unibertsitatea
1. postakutxa-48080 Bilbo
www.deusto.es
publicaciones@deusto.es
ISBN: 978-84-9830-526-5

Índice

Aurkibidea

Prólogo a la primera edición	15
Prólogo a la segunda edición	21
§1. LEY 49/1960, DE 21 DE JULIO, SOBRE PROPIEDAD HORIZONTAL	23
Índices analíticos	75
Castellano-euskera	77
Euskera-castellano	97
§2. LEY 29/1994, DE 24 DE NOVIEMBRE, DE ARRENDAMIENTOS URBANOS ..	117
Índices analíticos	203
Castellano-euskera	205
Euskera-castellano	221
§3. LEY 42/1998, DE 15 DE DICIEMBRE, SOBRE DERECHOS DE APROVECHA- MIENTO POR TURNO DE BIENES INMUEBLES DE USO TURÍSTICO Y NOR- MAS TRIBUTARIAS	237
Índices analíticos	299
Castellano-euskera	301
Euskera-castellano	309
§4. LEY 49/2003, DE 26 DE NOVIEMBRE, DE ARRENDAMIENTOS RÚSTICOS ..	317
Índices analíticos	365
Castellano-euskera	367
Euskera-castellano	377

Lehenengo argitaraldiaren atarikoak	11
Bigarren argitaraldiaren atarikoak	19
§1. UZTAILAREN 21eko 49/1960 LEGEA, JABETZA HORIZONTALARENA ...	23
Aurkibide analitikoak	75
Gaztelania-euskara	77
Euskara-gaztelania	97
§2. AZAROAREN 24ko 29/1994 LEGEA, HIRI-ERRENTAMENDUENA	117
Aurkibide analitikoak	203
Gaztelania-euskara	205
Euskara-gaztelania	221
§3. ABENDUAREN 15eko 42/1998 LEGEA, TURISMO ERABILERAKO ONDASUN HIGIEZINEN TXANDAKAKO APROBETXAMENDU-ESKUBIDEENA ETA ZERGA-ARAUENA	237
Aurkibide analitikoak	299
Gaztelania-euskara	301
Euskara-gaztelania	309
§4. AZAROAREN 26ko 29/2003 LEGEA, LANDA-ERRENTAMENDUENA	317
Aurkibide analitikoak	365
Gaztelania-euskara	367
Euskara-gaztelania	377

Lehenengo argitaraldiaren atarikoak

Bilduma honetan argitaratu dituzte Deustuko Unibertsitateak eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak, azken urteetan, lege zibil elebidun zenbait. Horien jarraikoa da lege zibilen liburuki hau, bertara bildu baitira ondasun higiezin gaineko hainbat lege-testu, hain zuzen ere, esanahi garrantzitsua eta pisuzkoa dutenak zuzenbidearen jarduleentzat zein herritar eta kontsumitzaileen kezka eta arranguratan. Azken horiek dira, besteak beste, zuzeneko eta eguneroko harremanak dituztenak ondasun higiezin gaineko jabetzarekin.

Bide horretan agertzen dira, beraz, oraingo honetan, Jabetza Horizontalaren legea, Hiri-errentamenduena, Turismo Erabilerako Ondasun Higiezin Txandakako Aprobetxamendu-eskubideena eta Zerga-arauena, eta Landa-errentamenduena.

Horrela ere, ondasun higiezin erabilerak arautzen dituzten lege testu behineak baturik daude liburuki batera. Horiek ere laster osatuko dira Hipoteka Lege eta erregelamenduaren aldetik, bi hizkuntza ofizialetan, hots, euskaraz eta gaztelaniaz, ondasun higiezin gaineko zuzenbide espainiarraren ikuspegi zabala, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroako Foru Komunitatean aplikagarri dena, eskaintzeko.

Jabetza Horizontalaren Legea

Aipatu legeen artean, lehendaurrez, Jabetza Horizontalaren Legea dago, horrek egun duen zeregina nabaria baita, nahiz hirietan ohiko diren etxebizitza solairudunetan auzokoen arteko elkarrekiko bizimodua antolatzeko, nahiz, bestera ere, etxebizitza bi edo gehiago dituzten baserri edo eraikin bakartuen zatiketa-arazoak konpontzeko.

49/1960 Legea, uztaileko 21ekoa, Jabetza Horizontalarena, jabeen erkidegoak osatzeko tenorean ezinbesteko gakoa da. Halakoetan bizi dira, bizi ere, gure herri eta

hiritako biztanle gehienak. Horiek, zalantzarik gabe, gure kaleko nondik norakoak moldatzen dituzte.

Lan gutxi egin da, hala ere, jabeen erkidegoei halako hizkuntza-lanabesak emateko, horiek ere euskaraz bizi daitezten. Batzak, akta-liburuak egitea, iragarkiak... horra hor, besteak beste, euskarak izan dezakeen eragin zuzeneko esparrua. Horra ere, bestalde, erkidego horietan bizi diren euskaldunengana hurreratzeko modu arina.

Helburu horretara, hortaz, liburu honen legeria. Ahoz zein idatziz euren bizia euskaraz gauzatu nahi dutenentzat tresna egokia, betiere erkidegoen barneko eta kanpoko auzi-mundua alboratu gabe. Hartara, arlo honetan euskararen normalizazioa, gaur gaurkoz bederen, eginkizun da; areago oraindik idatzizko zereginetan, berori baita, esan legez, jabeen erkidegoen gorabeherak ahalik zehatzen islatzeko giltzarria.

Azpitarratzekoa da, azkenez ere, testu horrek barruratzen dituen azken lege-aldaetak; horien artean, desgai direnen bizimodua errazteko asmoarekin, eraikinaren osagaietan egin beharreko irisgarritasun-obrei dagokiena. Halaber, Kode Zibilarren 396. artikulua ere jaso da, egun duen idatzaldiarekin, berori baita baztertu ezineko osagarria jabetza horizontalari dagokionez.

Hiri-errendamenduen Legea

Esanahi handikoa bada eguneroko jardunean jabetza horizontalaren esparrua, beste horrenbeste gertatzen da Hiri-errendamenduen Legearekin, horren bidez iristen baitira hainbat eta hainbat herritar etxebizitzaren gozamenera.

Espainiako estatuaren euskal herrialdeen kasuan, indarreko legeria 1995. urteko Hiri-errendamenduen Legea da. Horixe da liburu honetara ekarritako lege-testua. Horretara ere, tradizio laburra osatu da, lege-testu honen aurrekoa ere euskaraturik baitago, haren eranskin erabilgarriak eta guzti, hots, hiri-errentamenduek dituzten kontratu desberdinetako agiritegi euskarazkoa.

Euskarazko testu berri honen egiteak ekarri du, elebitasunaz kanpo ere, halako jokaera orekatua, edukiaren aldetik hurbilen dituen beste lege zibilen eremuan bera ere kokatzekoa. Horretan datza, bestalde, edozein antolamendu juridikok behar duen osotasuna.

Turismo Erabilerako Ondasun Higiezin Txandakako Aprobetxamendu-eskubideen eta Zerga-arauen Legea

Menturaz, lege hau da gutxien aplikatzen dena Espainiako estatuaren euskal herrialdeetan. Hemen sartzea, berriz, nahitaezkoa da, ondasun higiezinak erabiltzeko modu ez ohikoa dakarren neurrian, batik bat herri anglosaxoien eraginean.

Bide bertsutik, horrek dakartza jabetzaren esangura klasikoaren urradura eta muga berriak, jabetzaren iraupena dela eta.

Legeak berak batzen ditu, bestetik ere, txandakako aprobetxamenduaren arazoak, eta era-erara zuritzen du Espainiako antolamendu juridikoan kontzeptuari eman zaion irtenbidea. Gogoeta bera egin da euskaraz ere, formarik egokiena zein den zehazteko. Huraxe bildu da testu honetara. Galdera bera egin daiteke, jakina, lege honen hizkuntza-xedapen batzuen eraginarengatik, hala nola, txandakako kontratuak zein hizkuntzetan idatzi behar diren arautzen duen horrexegatik. Hari bertsutik etor daiteke, etorri ere, euskaldunek euren atsedenekuetan, halako kontratuak euskaraz jasotzeko aukera eta abagunea izatea.

Landa-errendamenduen Legea

Liburu honetara bildutako testu guztien artean, hauxe da berriena, joan den urtean onetsi, Estatuko Aldizkari Ofizialean azaroaren hogeita zazpian argitaratu eta aldarrikatu baita. Indarrean ere, oraintsu jarri da, argitaratzetik sei hilabetera, eta horren jarduera praktikoa berrikuntzaren aldetik dator.

Nolanahi ere, lehen aldiz egin da landa-errendamenduen testu elebidun eta osoa, gai honek agerpen ugari izan baititu betidanik Euskal Herrian, baserria eta horren ustiapena ere tartean dagoela, dela errentamenduaren bidez, dela apartzeria eta osterantzeko kontratuen bidez. Horren ondorioz, lege honek berebiziko eragina izan dezake euskal gizartean aintzat hartzeko modukoa den nekazaritza-alorrean.

Izatez, badira XX. mendean baserri-giroko xedapenak, Euskal Herriko herrialdeetan euskaraz barreiatu direnak. Adibidez, Bigarren Errepublikaren Dekretua, lehen Eusko Jaurlaritzaren edota oraintsu arte indarrean egon den kontratu-tipoaren itzulpena. Egin-eginean ere, aurrekarien bila joateak XIX. mende hondarretara edo XX. mende hasierara garamatza, euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez idatzitako baserritar sindikatuen testu elebidunekoak aurkitu arte. Nabarmen-nabarmen, bigeintza horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean ondutako elebidun aldizkaria, nekazaritzaren inguruko lege-testu osoak barneratu zituen.

Bestalde ere, bada alor honetan zer esan euskararen aldetik. Lurra sustatzen jakin dute euskaldunek, eta haren fruituak sortzeko kontratuak ere artez izendatu (*er-dirikue, gasaila...*) Horiek ere, bazterrean ezin utzizkoak eta lagungarriak izan dira zeregin honetan, euskarari testu eguneratua eman nahian.

Argitalpenaren ezaugarriak

Gorago esan bezalaxe, argitalpen honen norabidea aurretiaz eta bilduma honetan agerturikoen lorratzetik doa. Elebiduna da testua, gaztelania-euskara, betiko aurkibide analitikoak dituela, gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania. Aringarri

oso dira horiek, kontzeptu bakoitza berari dagokion lege-testuaren artikuluan kartzeko eta bi hizkuntzen arteko ordainak erraz antzemateko. Aurkibideak ere, lege bakoitzarenak dira euren edukiaren arabera.

Euskarazko testuak Euskaltzaindiaren arauak eta gomendioak gorde eta oinarrian ditu, bilduma honetako bestelako liburuek bezalaxe, Deustuko Unibertsitatearen argitalpen juridikoekin osaturiko datu-basea zein osterantzeko erakunde eta ekimenak, adibidez, Euskalterm-ek landutako terminologia.

Argitalpenaren arduradunak

Aurrekoetan legez, testu hau lantalde baten emaitza da. Horren ardatza gertatu da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Deustuko Unibertsitatearen Euskal Gaien Institutuaren arteko hitzarmena. Lege hauen lehen testua egin dute Esther Urrutia eta Andres Urrutia irakasleek, Eusko Ikaskuntzen Institutuaren eta Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiaren barruan. Horren berrikusketa ere, institutu bereko Aiora Aristondo ikerlearen eta Arantza Etxebarria laguntza terminologikoaren arduradunaren parte-hartzearekin egin da, Zuzenbideko Fakultatearen irakasle diren Esther Urrutia, Gotzon Lobera eta Andres Urrutiaren zuzendaritzapean. Testura ekarri dira, azkenez ere, HAEEn Mertxe Olaizola teknikariaren oharrak eta iradokizun terminologikoak.

Eguneroko erabilgarritasunean frogatu beharko dute testu hauek euren balioa. Horrek erakarriko du, hari beretik, lege-testuon alorrean euskarak izan dezakeen normalizazioa, nola gizartean hala mundu juridikoan, hain justu ere, gure ahaleginen xede sendo eta trinkoa.

Egileak

Prólogo a la primera edición

La legislación civil en euskera y castellano que estos últimos años ha venido publicándose dentro de esta colección bilingüe de textos legales tiene su continuación en este volumen de leyes referentes a diferentes instituciones jurídicas de gran trascendencia práctica y social en el quehacer diario de los profesionales del derecho y en el ámbito de las preocupaciones de los ciudadanos y consumidores, sobre todo en sus relaciones con la propiedad inmobiliaria.

En esa tesitura se encuentran la Ley de Propiedad Horizontal, la Ley de Arrendamientos Urbanos, la reciente Ley de Arrendamientos Rústicos y La Ley de Derechos de Aprovechamiento por Turno de Bienes Inmuebles de Uso Turístico y Normas Tributarias.

Se reúne así la problemática jurídica más usual en el campo de la utilización de los bienes inmuebles, que será además completada en fechas próximas con la aparición del volumen correspondiente a la Ley y el Reglamento Hipotecario, para poder disponer en las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Comunidad Foral de Navarra, de una amplia expresión del derecho inmobiliario español de aplicación en los territorios de las mismas.

Ley de Propiedad Horizontal

Un somero repaso de cada una de estas leyes sirve para poner de relieve la importancia, en primer lugar, de la legislación de propiedad horizontal como elemento conformador de la convivencia vecinal en los modernos bloques de viviendas o para, incluso como ocurre más recientemente, solucionar problemas de configuración de caseríos o edificaciones aisladas con diferentes espacios habitables.

La Ley 49/1960, de 21 de julio, de Propiedad Horizontal, es el marco de referencia básico en la formación de las comunidades de propietarios en las que vivimos inmersos la mayoría de los habitantes de las ciudades y pueblos que conforman nuestro paisaje urbano.

Poco se ha profundizado estos últimos años en proporcionar a estas comunidades de propietarios un instrumento lingüístico adecuado para poder desenvolver su actividad en euskera. La celebración de sus Juntas, la llevanza de los libros de actas, los anuncios y convocatorias... son un campo en el que la lengua vasca puede tener un efecto de inmediatez y utilización muy próximo a la realidad euskaldun y bilingüe de las personas que forman parte de dichas comunidades.

La legislación que ahora se ofrece supone, por lo tanto, un instrumento adecuado para que quienes quieran desarrollar su vida oral y escrita en euskera puedan disponer de un instrumento adecuado para ello. Es éste un sector en el que la normalización de la lengua vasca es un objetivo a conseguir, sobre todo cuando se trata de reflejar por escrito, como ya se ha dicho, la realidad bilingüe de muchas comunidades de propietarios.

El texto incluido recoge las últimas modificaciones legales, especialmente en materia de toma de decisiones en lo relativo a las obras para garantizar la accesibilidad a los elementos del edificio por parte de las personas discapacitadas. Se ha dado cabida también al texto del artículo 396 del Código Civil en su dicción actual, a fin de lograr el complemento indispensable en la regulación vigente de la propiedad horizontal.

Ley de Arrendamientos Urbanos

Si importante es en la vida práctica la propiedad horizontal, otro tanto cabe decir de los arrendamientos urbanos, que encauzan una gran cantidad de mecanismos jurídicos que permiten el acceso de amplias capas sociales a la utilización de la vivienda.

En el caso de los territorios de lengua vasca del estado español, la vigente legislación viene constituida por la Ley de Arrendamientos Urbanos de 1995, que es el texto incorporado a este volumen, retomando así una modesta tradición que ha llevado a la existencia en el acervo del euskera de una versión previa de esta ley que se ha complementado incluso con los correspondientes formularios en euskera de los diferentes tipos de arrendamientos urbanos, todo ello de la mano de la Cámara Oficial de la Propiedad.

La labor de realización de esta nueva versión al euskera ha tenido en cuenta la oportunidad de que el texto, además de bilingüe, fuese ubicado en el contexto de las leyes, que le son, por razón de su contenido, más próximas, pudiendo así complementar, como ya se ha dicho antes, los textos de derecho civil ya traducidos y existentes.

La Ley de Derechos de Aprovechamiento por Turno de Bienes Inmuebles de Uso Turístico

Es esta quizás la ley de menor aplicación de cuantas se han recogido en este volumen en el ámbito de los territorios de lengua vasca del estado español. Su in-

clusión, sin embargo, resulta ineludible en cuanto que supone una nueva forma de utilización de los bienes inmuebles de clara influencia anglosajona, junto con una cierta fractura del concepto clásico de la propiedad y sus limitaciones en cuanto al tiempo de duración del mismo.

La propia ley recoge, por otra parte, los problemas conceptuales y terminológicos de adaptación del concepto de aprovechamiento por turno y justifica la solución que se le ha dado en derecho español y en lengua castellana. Idéntica reflexión se ha tenido que hacer en euskera, para llegar a la obtener la fórmula más adecuada a nuestro juicio, que es la recogida en el texto publicado. Cabe igualmente preguntarse por la trascendencia de alguna de las disposiciones lingüísticas de esta ley tales como la relativa a los contratos de derechos de aprovechamiento por turno a redactar en diversas lenguas y que suponen para los usuarios del inmueble que conozcan la lengua vasca la opción de hacerlo en dicha lengua.

Ley de Arrendamientos Rústicos

De entre todos los textos legales incorporados a este volumen, éste es el más reciente, dado que su publicación en el Boletín Oficial del Estado el año pasado con fecha veintisiete de noviembre y su entrada en vigor seis meses después, hacen que su aplicación práctica sea en todo caso una novedad en el momento de publicarse este volumen.

De todos modos, es la primera vez que se realiza una versión bilingüe completa de la Ley de Arrendamientos Rústicos, un tema de gran importancia en el caso de los territorios de lengua vasca del estado español dada la extensión geográfica de las explotaciones agrícolas en forma de caserío y su realización a través del sistema de arrendamiento u otros como la aparcería hace que ésta sea la legislación que incide en uno de los sectores económicos a tener en cuenta en la sociedad vasca.

De hecho, no escasean a lo largo del siglo xx disposiciones relacionadas con la materia agrícola en los territorios vascos, siendo éste un tema también explicitado en euskera. Citar a título de ejemplo las disposiciones de la Segunda República sobre la cuestión, el Decreto del primer Gobierno Vasco o la traducción del contrato tipo de arrendamiento rústico con arreglo a la ley anteriormente vigente. La búsqueda de antecedentes nos lleva incluso a finales del siglo xix, o principios del siglo xx, con los estatutos de los sindicatos de agricultores en euskera o la revista bilingüe sobre agricultura, de corta vida, y con traducción de textos legislativos completos, que propició la Diputación Foral de Bizkaia (1918).

Es éste, además, un ámbito en el que las denominaciones tradicionales en euskera de algunos contratos de explotación de la tierra (*erdirikue, gasaila...*) tienen su ubicación correcta como referencias de una versión bilingüe y actualizada al devenir actual del euskera como lengua jurídica.

Características de la publicación

La presente edición responde a los requisitos y exigencias de la colección de la que forma parte. Se trata en definitiva de una versión bilingüe, con el texto castellano-euskera y provista de índices analíticos castellano-euskera y euskera-castellano, que facilitan la localización del concepto en el articulado legal y su equivalente en la otra lengua. Los índices van referenciados para cada ley y son específicos de su contenido.

El texto en euskera respeta las directrices emanadas de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia y tiene como base, además de la legislación ya publicada en esta colección, la base de datos elaborada con las publicaciones jurídicas en euskera de la Universidad de Deusto, así como las de otras instituciones e iniciativas, tales como Euskalterm.

Responsables de la publicación

El texto es fruto, como en ocasiones anteriores, del trabajo en equipo realizado al amparo del convenio de colaboración entre el Instituto Vasco de Administración Pública y el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto. Una primera versión de las leyes fue realizada por los profesores Doña Esther Urrutia y Don Andrés Urrutia, en el marco del Instituto de Estudios Vascos y el Seminario de Euskera Jurídico de la Universidad de Deusto. La posterior revisión del texto y elaboración de índices se ha efectuado con la ayuda de la investigadora del Instituto de Estudios Vascos Doña Aiora Aristondo y la encargada del Centro de Ayuda al Euskera del mismo Instituto Doña Arantza Etxebarria, bajo la dirección de Doña Esther Urrutia, Don Gotzon Lobera y Don Andrés Urrutia, profesores de la Facultad de Derecho. Por último, se han recogido las valiosas aportaciones terminológicas de Doña Mertxe Olaizola, técnica del Instituto Vasco de Administración Pública.

Esperamos que la utilización diaria de estos textos demuestre su utilidad en el campo de la normalización social y jurídica de la lengua vasca, tarea a la que, no hace falta repetirlo, van encomendados nuestros esfuerzos.

Los autores

Bigarren argitaraldiaren atariko

Azaroaren 30eko 2005/26 Legea, Landa-errentamenduen Legea, azaroaren 26ko 49/2003 Legea, aldarazi duena. Lege horren testua bildu da *Leyes civiles: Bienes inmuebles/Lege zibilak: Ondasun higiezinak* liburuaren bigarren argitaraldi honetan. Haren bidez eraldatu dira, besteak beste, landa-errentamenduei buruzko hainbat alor. Horra hor, bada, liburuaren berrargitalpen honek eskaintzen duen berrikuntza nabaria, aurkibide analitikoetan egindako egokitzapenekin batera, halako egokitzapenak egin behar izan direlako, aipatu lege-erlidaketen ondorioz.

Bilbon, 2007. urteko ekainaren 30ean

Prólogo a la segunda edición

En esta segunda edición de la obra *Leyes civiles: Bienes inmuebles/Lege zibilak: Ondasun higiezinak* se recoge la Ley 26/2005, de 30 de noviembre, por la que se modifica la Ley 49/2003, de 26 de noviembre, de Arrendamientos Rústicos, que ha realizado una serie de reformas en distintos aspectos de la regulación de los arrendamientos rústicos. Esa es la novedad más importante que aporta esta segunda edición, junto con la adaptación de los índices analíticos de la obra a las novedades legislativas incorporadas.

En Bilbao, a 30 de junio de 2007

§1.
Ley 49/1960, de 21 de julio,
sobre Propiedad Horizontal

§1.
Uztailaren 21eko 49/1960 Legea,
Jabetza Horizontalarena

§1. LEY 49/1960, DE 21 DE JULIO, SOBRE PROPIEDAD HORIZONTAL	27
Exposición de motivos	27
Capítulo I Disposiciones generales	38
Capítulo II Del régimen de la propiedad por pisos o locales	40
Capítulo III Del régimen de los complejos inmobiliarios privados	69
Disposición adicional	71
Disposiciones transitorias	73
Primera	73
Segunda	73
Disposición final	74
Índices analíticos	75
Castellano-euskera	77
Euskera-castellano	97

§1. UZTAILAREN 21eko 49/1960 LEGEA, JABETZA HORIZONTALARENA . . .	27
Zioen azalpena	27
I. kapitulua Xedapen orokorrak	38
II. kapitulua Pisu edo lokalen gaineko jabetzari buruzko araubidea	40
III. kapitulua Ondasun higiezinaren eremu pribatuei buruzko araubidea	69
Xedapen gehigarria	71
Xedapen iragankorrak	73
Lehenengoa	73
Bigarrena	73
Azken xedapena	74
Aurkibide analitikoak	75
Gaztelania-euskara	77
Euskara-gaztelania	97

Ley 49/1960, de 21 de julio sobre Propiedad Horizontal

(«BOE», n.º 176,
de 23 de julio)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Si en términos generales toda ordenación jurídica no puede concebirse ni instaurarse a espaldas de las exigencias de la realidad social a que va destinada, tanto más ha de ser así cuando versa sobre una institución que, como la propiedad horizontal, ha adquirido, sobre todo en los últimos años, tan pujante vitalidad, pese a no encontrar más apoyo normativo que el abiertamente insuficiente representado por el artículo 396 del Código Civil. La presente Ley pretende, pues, seguir la realidad social de los hechos. Pero no en el simple sentido de convertir en norma cualquier dato obtenido de la práctica, sino con un alcance más amplio y profundo. De un lado, a causa de la dimensión de futuro inherente a la ordenación jurídica, que impide entenderla como mera sanción de lo que hoy acontece y obliga a la previsión de lo que puede acontecer. Y de otro lado, porque si bien el punto de partida y el destino inmediato de los normas es regir las relaciones humanas, para lo cual importa mucho su adecuación a las concretas e históricas exigencias y contingencias de la vida, no hay que olvidar tampoco que su finalidad última, singularmente cuando se concibe el

Uztailaren 21eko 49/1960 Legea, Jabetza Horizontalarena

(«EAO», 176. zk.,
1960ko uztailaren 23koa)

ZIOEN AZALPENEA

Orokorrean, antolamendu juridikoa ezin da ulertu, ezta ezarri ere, gizarte-errealitatearen eskakizunak aintzat hartu gabe, gizarte-errealitatea haren jasotzaile baita. Egitate hori areagotu egiten da, antolamendu juridikoak jabetza horizontalaren moduko erakundeak arautzen dituenean. Izan ere, erakunde horrek, azken urteotan, egundoko bizitasuna erdietsi du, nahiz eta arauetan oinarri guztiz urria izan, Kode Zibilaren 396. artikulua bakarrik arautzen baitzuen erakunde hori. Lege honen helburua da, beraz, egitateen gizarte-errealitateari erreparatzea. Hala eta guztiz ere, lege honek ez ditu arau bihurtuko praktikatik lortutako datu guztiak; aitzitik, lege honen xedea zabalago eta sakonagoa da. Alde batetik, antolamendu juridiko guztiek etorkizunerako joera dutenez gero, ez da nahiko gaur praktikan gertatzen dena berrestea; horrez gain, etorkizunean gerta daitekeena ere aurreikusi beharra dago. Beste alde batetik, arau guztien abiapuntua eta hurbileko destinoa da gizakien arteko harremanak arautzea; horregatik, oso garrantzitsua da eskakizun zehatz eta historikoak aintzakotzat hartzea, bai eta bizitzaren gorabeherak gogoan izatea ere. Zernahi gizaz, ezin da ahaztu

Derecho positivo en función del Derecho natural, es lograr un orden de presido por la idea de la justicia, la cual, como virtud moral, se sobrepone tanto a la realidad de los hechos como a las determinaciones del legislador, que siempre ha de hallarse limitadas y orientadas por ella.

Hay un hecho social básico que en los tiempos modernos ha influido sobremanera a través de un factor constante, cual es la insuprimible necesidad de las edificaciones, tanto para la vida de la persona y la familia como para el desarrollo de fundamentales actividades, constituidas por el comercio, la industria y, en general, el ejercicio de las profesiones. Junto a ese factor, que es constante en el sentido de ser connatural a todo sistema de vida y de convivencia dentro de una elemental civilización, se ofrece hoy, provocado por muy diversas determinaciones, otro factor que se exterioriza en términos muy acusados, y es el representado por las dificultades que entraña la adquisición, la disponibilidad y el disfrute de los locales habitables. La acción de Estado ha considerado y atendido a esta situación real en tres esferas, aunque diversas, muy directamente relacionadas: en la esfera de la construcción, impulsándola a virtud de medidas indirectas e incluso, en ocasiones, afrontando de modo directo la empresa; en la esfera del arrendamiento, a través de una legislación frecuentemente renova-

zein den arauen azken xedea, batez ere, zuzenbide positiboa zuzenbide naturalaren arabera ulertzen denean. Azken xede hori da, hain justu ere, elkarbizitzarako ordena lortzea, eta ordena horretan justiziaren ideia nagusi izatea. Justiziaren ideia horrek, bertute moral gisa hartuta, gairitu egiten ditu, hala egitateen errealitatea, nola legegilearen zehaztapenak; justiziak horiek guztiak mugatu eta orientazioa eman behar die.

Egungo egunetan, oinarrizko gizarte-egitate batek egundoko eragina izan du, faktore iraunkor baten bitartez. Arean ere, eraikinak izateko beharri-za ezinbestekoa da, bai gizabanakoaren eta familiaren bizitzarako, bai eta oinarrizko jarduerak burutzeko ere; jardueron artean aipa daitezke, bestek beste, merkataritza, industria eta, orokorrean, lanbideetan aritzea. Faktore hori, esan bezala, iraunkorra da, oinarrizko zibilizazioaren barruan, bizimodu eta elkarbizitzarako sistema orori baitaxekio. Faktore horrekin batera, bada beste faktore bat, hainbat zehaztapenek eragin dutena eta nabariro kanporatu dena. Egin-eginean ere, oso zail gertatzen da bizitzeko lokalak eskuratu, erabili eta lupertzea. Estatuaren ekin-tzak egiazko egoera hori kontuan hartu du, eta konpontzeko ahaleginak egin ditu, hiru esparrutan. Esparruok, euren artean desberdinak badira ere, zuzen-zuzeneko loturak dituzte elkarrekin. Eraikuntzaren esparruan, estatuak eraikitza suspertu du, zeharkako neurrien bitartez; eta, zenbait kasutan, estatuak berak, zuzen-zuzenean, enpresaren arduratu du bere gain. Errentamendua- ren esparruan, estatuak sarritan berriz-

da, que restringe el poder autónomo de la voluntad con el fin de asegurar una permanencia en el disfrute de las viviendas y los locales de negocio en condiciones económicas sometidas a un sistema de intervención y revisión; y en la esfera de la propiedad, a virtud principalmente de la llamada propiedad horizontal, que proyecta esta titularidad sobre determinados espacios de la edificación. La esencial razón de ser del régimen de la propiedad horizontal descansa en la finalidad de lograr el acceso a la propiedad urbana mediante una inversión de capital que, al quedar circunscrita al espacio y elementos indispensables para atender a las propias necesidades, es menos cuantiosa y, por lo mismo, más asequible a todos y la única posible para grandes sectores de personas. Siendo ello así, el régimen de la propiedad horizontal no sólo precisa ser reconocido, sino que además requiere que se le aliente y encauce, dotándole de una ordenación completa y eficaz. Y más aún si se observa que, por otra parte, mientras las disposiciones legislativas vigentes en materia de arrendamientos urbanos no pasan de ser remedios ocasionales, que resuelven el conflicto de intereses de un modo imperfecto, puesto que el fortalecimiento de la institución arrendaticia se consigue imponiendo a la propiedad una carga que difícilmente puede sobrellevar; en cambio, conjugando las medidas dirigidas al incremento de la construcción con un bien organizado régimen de la propiedad horizontal, se afronta el problema de la vivienda y los conexos a él en un plano más adecuado, que permi-

tatu du errentamenduei buruzko legeria. Legeria horrek borondatearen indar autonomoa murriztu du, etxebizitzak eta negozio-lokalak baldintza errentagarrietan lupertu ahal izateko; horretarako, esku-hartzea eta berrikustea sustatu ditu, errentamenduen sistema horretan. Eta, jabetzaren esparruan, es-tatuak jardun du, batik bat, jabetza horizontal izenekoaren bitartez; jabetza horretan, titulartasuna eraikinaren espazio zehatz batzuetara mugatzen da. Jabetza horizontalari buruzko arauketaren zergatia haren helburuan oinarritzen da. Helburu horren arabera, hiri-jabetza erdietsi nahi da, horretarako kapital-inbertsio merkeagoak eginez, eta, ondorenez, guztientzat errazago bihurtuz. Esan bezala, jabetza horizontala mugatu egiten da, norberaren beharrianak asetzeko nahitaezkoak diren espazio eta osagaietara; eta, horregatik, pertsona askorentzat, jabetza horizontala hori lortzeko bide bakarra izan daiteke. Gauzak horrela, jabetza horizontalari buruzko aruketa aitortu beharra dago. Baina, aitortzearekin batera, aruketa hori suspertu eta bideratu behar da, antolamendu oso eta eragin-garria ezarritz. Eskakizun hori areagotu egiten da, bestalde, hurrengo ikusiz gero: hiri-errentamenduei buruz indarrean dauden lege-xedapenak noizik behinkako konponbideak besterik ez dira. Xedapen horiek ez dute bete-betean konpontzen interes-gatazka. Jakina denez, errentamenduen erakundea indartzeko, jabetzari zama jasangaitza ezarri zaio. Haatik, eraikintza sustatzeko neurriekin batera, jabetza horizontalari buruzko aruketa ondo antolatzen bada, egokiro egingo zaie aurre etxebi-

te soluciones estables; y ello a la larga redundará en ventaja del propio régimen arrendaticio, que podrá, sin la presión de unas exigencias acuciantes, liberalizarse y cumplir normalmente su función económico-social.

La Ley representa, más que una reforma de la legalidad vigente, la ordenación ex novo, de una manera completa, de la propiedad por pisos. Se lleva a cabo mediante una Ley de carácter general, en el sentido de ser de aplicación a todo el territorio nacional. El artículo 396 del Código Civil, como ocurre en supuestos análogos, recoge las notas esenciales de este régimen de propiedad y, por lo demás, queda reducido a norma de remisión. El carácter general de la Ley viene aconsejado, sobre todo, por la razón de política legislativa derivada de que la necesidad a que sirve se manifiesta por igual en todo el territorio; pero también se ha tenido en cuenta una razón de técnica legislativa, como es la de que las disposiciones en que se traduce, sin descender a lo reglamentario, son a veces de una circunstanciada concreción que excede de la tónica propia de un Código Civil.

La propiedad horizontal hizo su irrupción en los ordenamientos jurídicos como una modalidad de la comunidad de bienes. El progresivo desenvolvimiento de la institución ha tendido principalmente a subrayar los perfiles

zitzaren arazoei eta horiekin lotura duten beste arazo batzuei. Modu horretan jokatzek ahalbidetzen du konponbide egonkorrak izatea. Horrek, bihar-etzi, mesede egingo dio errentamenduen arauketari berari, arauketa horrek ez baitu presako eskakizunen presioa jasane beharko; ondorenez, liberalizatu egingo da, eta errazago beteko du gizar-tean eta ekonomiaren esparruan dagokion eginkizuna.

Legea, indarreko legeriaren eraldaketa baino gehiago, ex novo prestatuko antolamendua da; antolamendu horrek oso-osorik arautzen du pisukako jabetza. Arauketa ezartzeko, lege orokorra onetsi da; lege hori, beraz, estatuaren lurralde osoan aplikatu behar da. Antzeko kasuetan gertatzen den bezala, Kode Zibilaren 396. artikulua jabetza-mota horren oinarritzko ezaugarriak jasotzen ditu, eta, gainerakoan, igorpen-araua besterik ez da. Legea, ordea, orokorra da, hori gomendagarria baita, legegintzako politikaren arrazoi hau kontuan hartuta: legeak asebeste nahi duen beharrezana lurralde osoan gertatzen da modu berean. Horrekin batera, legegintzako teknikaren arrazoi hau ere aintzakotzat hartu da: legearen ondoriozko xedapenak, erregelamenduetara heldu ez arren, batzuetan, oso-oso zehatzak dira, eta zehaztasun horrek gaintitzen du Kode Zibilari berezko zaion izaera.

Jabetza horizontala antolamendu juridikoetan barnerratu zen, ondasun-er-kidegoaren modalitate gisa. Alabaina, erakunde hori ezari-ezarian bilakatu den heinean, bilakaerak azpimarratu egin ditu jabetza horizontalaren zenbait

que la independizan de la comunidad. La modificación que introdujo la Ley de 26 de octubre de 1939 en el texto del artículo 396 del Código Civil ya significó un avance en ese sentido, toda vez que reconoció la propiedad privativa o singular del piso o local, quedando la comunidad, como accesoria, circunscrita a lo que se ha venido llamando elementos comunes. La Ley —que recoge el material preparado con ponderación y cuidado por la Comisión de Códigos—, dando un paso más, pretende llevar al máximo posible la individualización de la propiedad desde el punto de vista del objeto. A tal fin, a este objeto de la relación, constituido por el piso o local, se incorpora el propio inmueble, sus pertenencias y servicios. Mientras sobre el piso estricto sensu, o espacio delimitado y de aprovechamiento independiente, el uso y disfrute son privativos, sobre el «inmueble», edificación, pertenencias y servicios —abstracción hecha de los particulares espacios— tales uso y disfrute han de ser, naturalmente, compartidos; pero unos y otros derechos, aunque distintos en su alcance, se reputan inseparablemente unidos, unidad que también se mantiene respecto de la facultad de disposición. Con base en la misma idea se regula el coeficiente o cuota, que no es ya la participación en lo anteriormente denominado elementos comunes, sino que expresa, activa y también pasivamente, como módulo para cargas, el valor proporcional del piso y a cuanto él se considera unido en el conjunto del inmueble, el cual, al mismo tiempo que se divide física y jurídicamente en pisos o locales se di-

ezaugarri, eta ezaugarri horiek erkidegotik aldentzen dute jabetza horizontala. Ezaguna denez, 1939ko urriaren 26ko Legeak aldarazi egin zuen Kode Zibilaren 396. artikulua testua. Aldarazpenak, bide horretan, berebiziko aurrerakada eragin zuen. Hurrean ere, eraldaketak pisu edo lokalaren gaineko jabetza pribatibo edo berezia aitortu zuen; horren ondorioz, erkidegoa jabetza erantsia baino ez zen, osagai erkide izenekoetara mugatuta. Legeak, horretarako, Kodeen Batzordean tentuz eta neurritz prestatuko materiala jasotzen du. Eta beste pauso bat emanez, jabetzaren bakoitzasuna ahalik eta gehien sustatu nahi du, objektuaren ikusmiratik behinik behin. Legeak, helburu hori betetzeko, harremanen objektu horri, hau da, pisu edo lokalari, erantsi egiten dizkio eraikina bera, horri dagozkionak eta zerbitzuak. Pisia, esangura heretsian, modu independentean aprobetxa daitekeen espazio mugatua da. Pisu horren gainean, erabilera eta luperketa pribatiboak dira. Haatik, «ondasun higiezin»aren, eraikinaren, horiei dagozkien eta zerbitzuen gainean —espazio pribatiboak alde batera utzita—, erabilera eta luperketa horiek, zentzuzkoa denez, elkarrekin banatu behar dira. Eskubide batzuk eta besteak desberdinak dira, euren norainokoa kontuan hartuz gero. Zernahi gisaz, euren artean lotura banaezina atzematen da; lotura horri eutsi egiten zaio, xedatze-ko ahalmenari dagokionez ere. Ideia berbera oinarritzat hartuta, koefizientea edo kuota arautu da. Kuota jadanik ez da lehen osagai erkide izena hartzen zuten horien gaineko partaidetza. Aitzitik, kuota da pisuak eta horri lotutako

vide así económicamente en fracciones o cuotas.

En este propósito individualizador no hay que ver una preocupación dogmática y mucho menos la consagración de una ideología de signo individualista. Se trata de que no olvidando la ya aludida función social que cumple esta institución, cabe entender que el desigmo de simplificar y facilitar el régimen de la propiedad horizontal se realiza así de modo más satisfactorio. Con el alejamiento del sistema de la comunidad de bienes resulta ya no sólo congruente, sino tranquilizadora la expresa eliminación de los derechos de tanteo y retracto, reconocidos, con ciertas peculiaridades, en la hasta ahora vigente redacción del mencionado artículo 396. Ahora bien, tampoco en este caso ha sido esa sola consideración técnica la que ha guiado la Ley. Decisivo influjo han ejercido tanto la notoria experiencia de que actualmente se ha hecho casi cláusula de estilo la exclusión de tales derechos como el pensamiento de que no se persigue aquí una concentración de la propiedad de los pisos o locales, sino, por el contrario, su más amplia difusión.

Motivo de especial estudio ha sido lo concerniente a la constitución del régimen de la propiedad horizontal y a la determinación del conjunto de debe-

guztia, ondasun higiezin osoari begira, duten proportziozko balioa. Ondasun higiezina, beraz, pisu eta lokaletan zatitzen da, eta zatiketa hori, fisikoa eta juridikoa izateaz gain, ekonomikoa ere bada, frakzioak edo kuotak bereizten direlako.

Bakoitzasunerako joera horretan, ez da kezka dogmatikorik ikusi behar. Joera horretan, orobat, ez da ideologia indibidualistaren islarik ikusi behar, ezta hurrik eman ere. Kontua da erakunde honek gizartean betetzen duen eginkizun hori ez ahanzte, eta, horrekin batera, jabetza horizontalari buruzko arauketa sinplifikatu eta erraztea, ahalik eta egokien gauza dadin. Lehen esan bezala, sistema ondasun-erkidegotik aldendu da. Aldentze hori aintzat hartuta, zentzuzkoa da, eta lasaigarria ere bada, eroslehentasun-eskubidea eta atzera-eskuratze eskubidea ezabatzea; 396. artikulua, aitzitik, bi eskubide horiek aitortu zituen, bereizgarri batzuekin bada ere, orain arte indarrean egon den idatzaldi horretan. Dena den, kasu horretan ere, legea gidatzeko arazoia ez da oharbide teknikoa izan. Erabakigarriak izan dira, ordea, bi gertaera hauek: alde batetik, ageriko esperientziak erakusten duen bezala, gaur egun estilo-klausula bihurtu da eskubide horiek baztertzea; eta, beste alde batetik, helburua ez da pisu edo lokalen gaineko jabetza pilatzea, baizik eta, alderantziz, horiek ahal den beste hedatzea.

Azterketa sakonak egin dira, bestalde, hala jabetza horizontalaren eraketari buruz, nola hori osatzen duten egin-behar eta eskubideen zehaztapenari

res y derechos que lo integran. Hasta ahora, y ello tiene una justificación histórica, este materia ha estado entregada casi de modo total, en defecto de normas legales, a la autonomía privada reflejada en los Estatutos. Estos, frecuentemente, no eran fruto de las libres determinaciones recíprocas de los contratantes, sino que, de ordinario, los dictaba, con sujeción a ciertos tipos generalizados por la práctica, el promotor de la empresa de construcción, limitándose a prestar su adhesión las personas que ingresaban en el régimen de la propiedad horizontal. La Ley brinda una regulación que, por un lado, es insuficiente por sí —con las salvedades dejadas a la iniciativa privada— para constituir, en lo esencial, el sistema jurídico que presida y gobierne esta clase de relaciones, y, por otro lado, admite que, por obra de la voluntad, se especifiquen, completen y hasta modifiquen ciertos derechos y deberes, siempre que no se contravengan las normas de derecho necesario, claramente deducibles de los mismos términos de la Ley. De ahí que la formulación de Estatutos no resultará indispensable, si bien podrán éstos cumplir la función de desarrollar la ordenación legal y adecuarla a las concretas circunstancias de los diversos casos y situaciones.

El sistema de derechos y deberes en el seno de la propiedad horizontal aparece estructurado en razón de los intereses en juego.

Los derechos de disfrute tienden a atribuir al titular las máximas posibilidades de utilización, con el límite re-

buruz. Gure egunok arte, eta honek badu oinarri historikorik, gai hori autonomia pribatuaren esku geratu da ia erabat, lege-arauak izan ezean. Autonomia pribatu hori estatutuetan jasotzen da. Nolanahi den ere, estatutuak sarritan ez dira izaten kontratugileen elkarrekiko zehaztaperen askeak. Aitzitik, maiz-sarri, eraikintza-enpresaren sustaizaileak ezartzen ditu estatutu horiek, praktikak orokor bihurtu dituen eredu zehatz batzuen arabera. Norbait jabetza horizontalaren araubidean sartzen bada, estatutu horiei atxikimendua baino ez die emango. Legeak, aldiz, arauketa berria ezarri du. Alde batetik, arauketa hori urria da berez —ekimen pribatuaren esku utzitako salbuespenak gorabehera—; baina haren helburua da, oinarrian, harreman-mota horiek arautu eta gobernatuko dituen sistema juridikoa eratzea. Beste alde batetik, legeak onartzen du, borondatearen ekimenez, zenbait eskubide eta eginbehar zehaztu, osatu eta aldaraztea, baldin eta aginduzko zuzenbidearen arauak urratzen ez badira; aginduzko zuzenbide horren arauak argiro-argiro atera daitezke legearen testutik. Hori guztia dela medio, ez da nahitaezkoa estatutuak idaztea; alabaina, estatutuen eginkizuna izan daiteke lege-arauketa garatzea, eta arauketa hori kasuan kasuko eta egoera zehaztetako inguruabarrei egokitzea.

Jabetza horizontalaren arloan, eskubide eta eginbeharren sistema egituratzeko, aintzakotzat hartu dira arlo horrekin zerikusia duten interesak.

Lupertzeko eskubideen bitartez, titularrak objektua erabiltzeko gehiengo aukerak ditu. Horiek, alabaina, euren

presentado tanto por la concurrencia de los derechos de igual clase de los demás cuanto por el interés general, que se encarna en la conservación del edificio y en la subsistencia del régimen de propiedad horizontal, que requiere una base material y objetiva. Por lo mismo, íntimamente unidos a los derechos de disfrute aparecen los deberes de igual naturaleza. Se ha tratado de configurarlos con criterios inspirados en las relaciones de vecindad, procurando dictar unas normas dirigidas a asegurar que el ejercicio del derecho propio no se traduzca en perjuicio del ajeno ni en menoscabo del conjunto, para así dejar establecidas las bases de una convivencia normal y pacífica.

Además de regular los derechos y deberes correspondientes al disfrute, la Ley se ocupa de aquellos otros que se refieren a los desembolsos económicos a que han de atender conjuntamente los titulares, bien por derivarse de las instalaciones y servicios de carácter general, o bien por constituir cargas o tributos que afectan a la totalidad del edificio. El criterio básico tenido en cuenta para determinar la participación de cada uno en el desembolso a realizar es la expresada cuota o coeficiente asignado al piso o local, cuidándose de significar que la no utilización del servicio generador del gasto no exime de la obligación correspondiente.

Una de las más importantes novedades que contiene la Ley es la de vigorizar en todo lo posible la fuerza

mugak dituzte, gainerako titularrek ere mota bereko eskubideak baitituzte eta interes orokorra nagusitu behar baita. Interes orokor horren eretzean, eraikina artatu behar da, eta jabetza horizontalaren araubideari eutsi behar zaio, horrek oinarri material eta objektiboa behar duelako. Arrazoi berberaren ondorioz, lupertzeko eskubideei barne-barnetik lotuta, izaera bereko eginbeharrak ageri dira. Eginbehar horiek itxuratzeko, zenbait irizpide erabili dira, eta irizpide horiek auzotarren arteko harremanetan oinarritzen dira. Ahaleginak egin dira, arauk ondokoa ziurta dezaten: norberaren eskubidea egikaritzeak ez dio kalterik egin behar inoren eskubideari, ezta talde osoaren eskubideari ere; horrela, elkarbizitza arrunt eta bakesuaren oinarriak ezarrita geratzen dira.

Lupertzeko eskubideak eta eginbeharrak arautzeaz gain, legeak ordainketa ekonomikoan ingurukoak ere arautu ditu. Halako ordainketak egitea titular guztiei dagokie, ordainketok instalazio eta zerbitzu orokorren ondorioz sortu direlako, edo, bestela, eraikin osoaren gaineko zama edo zergak direlako. Titular bakoitzak ordainketa horietan zein partaidetza izan behar duen jakiteko, oinarrizko irizpidea izan da lehen aipatutako kuota edo koefiziente, halakoa esleitzen baitzaio pisu eta lokal bakoitzari. Gainera, azpimarratu behar da, gastua sorrarazi duen zerbitzua erabili ez arren, horrek ez dakarrela bete-beharretik askatzea.

Legearen berrikuntzen artean, garrantzitsuena izan da, beharbada, titularrei ezarritako eginbeharrak lotesleak izatea,

vinculante de los deberes impuestos a los titulares, así por lo que concierne al disfrute del apartamento, cuanto por lo que se refiere al abono de gastos. Mediante la aplicación de las normas generales vigentes en la materia, el incumplimiento de las obligaciones genera la acción dirigida a exigir judicialmente su cumplimiento, bien de modo específico, esto es, imponiendo a través de la coacción lo que voluntariamente no se ha observado, o bien en virtud de la pertinente indemnización. Pero esta normal sanción del incumplimiento puede no resultar suficientemente eficaz en casos como los aquí considerados, y ello por diversas razones: una es la de que la inobservancia del deber trae repercusiones sumamente perturbadoras para grupos extensos de personas, al paso que dificulta el funcionamiento del régimen de propiedad horizontal; otra razón es la de que, en lo relativo a los deberes de disfrute, la imposición judicial del cumplimiento específico es prácticamente imposible por el carácter negativo de la obligación, y la indemnización no cubre la finalidad que se persigue de armonizar la convivencia. Por eso se prevé la posibilidad de la privación judicial del disfrute del piso o local cuando concurren circunstancias taxativamente señaladas, y por otra parte se asegura la contribución a los gastos comunes con una afectación real del piso o local al pago de este crédito considerado preferente.

La concurrencia de una colectividad de personas en la titularidad de derechos que, sin perjuicio de su sustan-

eta izaera lotesle hori ahalik eta gehien indartzea. Hori gertatu da, dela apartamentuaren luperketari dagokionez, dela gastuen ordainketari dagokionez. Gai horren inguruan indarrean dauden arau orokorrak aplikatuta, betebeharrak betetzen ez badira, epaiketa bidez akzioa erabil daiteke, haiek betetzea eskatzeko. Betetzea zehatza izan daiteke; horrek esan nahi du derrigortze bidez ezarriko dela borondatez bete ez dena. Osterantzean, betetzea gauza daiteke kalte-ordain egokia emanez. Horiexek dira, beraz, betetzeari ezarri ohi zaizkion zehapenak. Zernahi gisaz, zehapenok eragingabeak izan daitezke hemen aztertutako kasuetan, eta hori arrazoi desberdinen ondorioz gerta daiteke. Arrazoi horietako bati helduta, eginbearra ez betetzeak ondorio oso kaltegarriak eragin diezazkioke pertsona askori, eta, gainera, jabetza horizontalaren jardunbidea oztopatzen du. Beste arrazoi bati erreparatuz, eta lupertzeko eginbearrei dagokienez, askotan epaiketa bidez betetze zehatza ezartzea ezinezkoa da, betebeharra negatiboa delako. Eta kalte-ordainarekin ez da helburua lortzen, alegia, elkarbizitza harmonizatzea. Hori gutzia dela eta, zehatz-mehatz aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean, epaiketa bidez pisu edo lokalaren luperketa kentzeko aukera dago. Horrekin batera, gastu erkideak ordainduko direla ziurtatzeko, pisu edo lokala kreditu horren ordainketari lotuta geratzen da; lotura hori, izatez, erreala da, eta kreditua, berriz, lehenespenkoa.

Helburua, 9.1.f).

Titulartasuna, 9.1.f).

Eskaileak, 1.

Eskubideak

Eroslehentasun-eskubidea eta atzera-es-
kuratzeko eskubidea, 2. xedapen ira-
gankorra.

Pisu edo lokal bakoitzaren ugazabak di-
tuen eskubideak, 3.

Xedatzeko eskubidea, 3.

Eskumena

Epaiketa bidezkoa, 18.1, 21.1.

Estalkiak, 1.

Estatutuak, 5.

Eraldatzea, 14.d).

Eroslehentasun-eskubidea eta atzera-es-
kuratzeko eskubidea, 2. xedapen ira-
gankorra.

Estatutuen aurkako erabakiak, 18.1.a).

Legeari egokitzea, 1. xedapen iragan-
korra.

Onestea, 14.d).

(Ikus *Barne eraentzari buruzko arauak*.)

Etxebizitza

Obrak

Artapen-obrak, 10.

Registrador, 19.

Procedimiento de reclamación, 21.

Arrendamientos

De elemento común, 17.

Fondo de reserva

Posibilidad de

Suscribir un contrato de seguro, 9.1.f).

Concluir un contrato de manteni-
miento, 9.1.f).

Procedimiento a seguir si no se contri-
buye, 21.

Reglas

Constitución, disposición adicional
1.a).

Dotación mínima, 9.1.f) y disposi-
ción adicional 1.b), c) y 2.

Objeto, 9.1.f).

Titularidad, 9.1.f).

Escaleras, 1.

Derechos

De tanteo y retracto, disposición transi-
toria 2.

Del dueño de casa piso o local, 3.

De disposición, 3.

Competencia

Judicial, 18.1, 21.1.

Cubiertas, 1.

Estatutos, 5.

Reforma, 14.d).

Derechos de tanteo y retracto, disposi-
ción transitoria 2.

Acuerdos contra los mismos, 18.1.a).

Adaptación a la ley, disposición transi-
toria 1.

Aprobación, 14.d).

(Véase *Normas de régimen interior*.)

Vivienda

Obras

De conservación, 10.

Minusbaliatuentzat egokitzea, 17.1.
 Partaidetza-kuota, 3.b) eta 5.
 Aldarazpenak, 11.2 eta 12.
 Telekomunikazio-zerbitzuak eskuratzeko azpiegiturak jartzea, 17.2.
 Zamak, 3.
 Zatitzea (debekua), 4.

De adecuación a minusvalía, 17.1.
 Cuota de participación, 3.b) y 5.
 Modificaciones, 11.2 y 12.
 De instalación de infraestructuras para servicios de telecomunicación, 17.2.
 Cargas, 3.
 División (prohibición), 4.

F

Finka

Hiri-finka, jabetza horizontalean inskribatzea, 5.
 Kanpoko egoera, 7.

Finca

Urbana, inscripción en propiedad horizontal, 5.
 Estado exterior, 7.

G

Ganbara

Titulu eratzailea, 5.

Garajea

Titulu eratzailea, 5.
 (Ikus *Garaje-plazak*.)

Garaje-plazak, 5.

Gastu orokorrak (ez ordaintzea)

Abokatuaren eta prokuradorearen lanbide-zerbitzuak, 21.6.
 Aurreneurrizko enbargoa, 21.5.
 Aurretiatzko ordainketa-agindeiaren gastuak, 21.3.
 Aurretiatzko ziurtagiria, 21.2.
 Betebeharrak betetzea, 9.1.e) eta 21.1.

Demanda, 21.4.
 Elkartutako erkidegoa, 24.2.b).
 (Ikus *Jabearen betebeharrak*.)

Gastuak

Administratzailearen eginkizunak, 20.b).
 Erabiltzen ez diren zerbitzuak, 9.2. eta 11.2.
 Erkideak, 10.
 Erreklamatzeko epaiketaz kanpokoak, 21.

Buhardilla

Titulo constitutivo, 5.

Garaje

Titulo constitutivo, 5.
 (Véase *Plazas de garaje*.)

Plazas de garaje, 5.

Gastos generales (incumplimiento del pago)

Servicios profesionales de abogado y procurador, 21.6.
 Embargo preventivo, 21.5.
 Gastos del requerimiento previo de pago, 21.3.
 Certificación previa, 21.2.
 Cumplimiento de las obligaciones, 9.1.e) y 21.1.
 Demanda, 21.4.
 Comunidad agrupada, 24.2.b).
 (Véase *Obligaciones del propietario*.)

Gastos

Funciones del Administrador, 20.b).
 Servicios que no se utilizan, 9.2 y 11.2.
 Comunes, 10.
 Extrajudiciales de reclamación, 21.

Jabeen batza, 14.b).
 Titulu eratzailera, 5.
 (Ikus *Zamak*.)

Gozamenduna

Batzara joatea, 15.1.

Junta de propietarios, 14.b).
 Título constitutivo, 5.
 (Véase *Cargas*.)

Usufructuario

Asistencia a la junta, 15.1.

H

Hartzekoduna (erkidegokoa), 21.5, 22.

Hobekuntzak

Eskatu ahal izatea, 11.1.
 Kuota ez aldatzea, 3.
 (Ikus *Obrak. Hobekuntza-obrak*.)

Acreeedor (de la comunidad), 21.5, 22.

Mejoras

Exigibilidad, 11.1.
 Inalterabilidad de la cuota, 3.
 (Véase *Obras de mejora*.)

I

Idazkaria

Akta-liburuak zaintzea, 19.4.
 Epea, 13.7.
 Erkidegoaren idazkaria, 13, 19.
 Idazkariak administratzaile gisa jardutea, 13.6.
 Kargurako legitimazioa, 13.6.
 Kargutik enkaitzea, 13.7.
 (Ikus *Erkidegoaren gobernu-organoak*.)

Igarobideak

1.

Igogailua

Zerbitzua ezarri edo kentzeko erabakia, 17.1.

Indargabetzea

Arauk, azken xedapena.

Indibiso erkidegoa

Nahita ezarri ez dena, 4.

Instalazioak

Aldarazpenak, 7.
 Berriak, 11.
 Jabetza horizontalaren araubidepeko pisuarenak, 3.

Secretario

Custodia de los libros de actas, 19.4.
 Plazo, 13.7.
 De la comunidad, 13, 19.
 Actuación como Administrador, 13.6.
 Legitimación para el cargo, 13.6.
 Remoción del cargo, 13.7.
 (Véase *Órganos de gobierno de la comunidad*.)

Pasos

1.

Ascensor

Acuerdo de establecimiento o supresión del servicio, 17.1.

Derogación

De las normas, disposición final.

Comunidad pro indiviso

No establecida de intento, 4.

Instalaciones

Modificaciones, 7.
 Nuevas, 11.
 Del piso en régimen de propiedad horizontal, 3.

Iraungitzea

Epeak

Erkidegoak hartutako erabakiei buruzkoak, 18, 24.

Irisgarritasuna, 10.2, 10.5, 11.

Desgai direnzentzat, 10.2.

Irisgarritasun-obrak, 10.2, 10.5, 11.3.

Tresna mekaniko eta elektronikoko ego-kietarako, 10.2.

Irteera, 1.

Itxuraketa

Obrak, 7.

Caducidad

De plazos

Sobre acuerdos comunitarios, 18, 24.

Accesibilidad, 10.2, 10.5, 11.

Para discapacitados, 10.2.

Obras de accesibilidad, 10.2, 10.3, 11.3.

Para dispositivos mecánicos y electrónicos adecuados, 10.2.

Salida, 1

Configuración

Obras, 7.

J

Jabe soila

Batzara joatea, 15.1.

Jabea

Betarazpenaren aurka jartzea, 22.2.

Betebeharrak, 9 eta 21.

Boto-eskubidea galtzea, 15.2 eta 16.2.

Debekatutako jardueren ondoriozko ohar-tarazpena, 7.2, 21.

Debekuak, 7 eta 11.

Arau-haustekak, 21.

Eskubideak, 3 eta 7.1.

Instalazio, zerbitzu edo hobekuntza berriak eskatzeko ezintasuna, 11.

Jabeen batzari eskaerak egitea, 16.2.

Jakinarazpenak, 9.1.h).

Mugaeguneratutako zorrak ordaindu gabe dituztenak, 15.2 eta 16.2.

Zatiketa-akzioa, 4.

Zorrak, 21.

(Ikus *Jabearen betebeharrak*.)

Jabearen betebeharrak

Artatzeko betebeharra, 9.1.b).

Behar besteko arretarekin jardutea, 9.1.g).

Ez-betetze kasuetan bete beharreko prozedura, 21.

Instalazio orokorreki buruz, 9.1.a).

Nudo propietario

Asistencia a la junta, 15.1.

Propietario

Oposición a la ejecución, 22.2.

Obligaciones, 9 y 21.

Pérdida del derecho de voto, 15.2 y 16.2.

Apercibimiento por actividades prohibidas, 7.2, 21.

Prohibiciones, 7 y 11.

Infracciones, 21.

Derechos, 3 y 7.1.

Imposibilidad de exigir nuevas instalaciones, servicios o mejoras, 11.

Peticiones a la junta de propietarios, 16.2.

Notificaciones, 9.1.h).

Que no están al corriente en el pago de las deudas vencidas, 15.2 y 16.2.

Acción de división, 4.

Deudas, 21.

(Véase *Obligaciones del propietario*.)

Obligaciones del propietario

De conservación, 9.1.b).

Actuar con la diligencia debida, 9.1.g).

Procedimiento a seguir en caso de incumplimiento, 21.

Con respecto a las instalaciones generales, 9.1.a).

Komunikatzea (zitazio eta jakinarazpenen ondorioetarako)

Espanian dagoen egoitza, 9.1.h).

Etxebizitza edo lokalaren titulartasuna aldatu dela, 9.1.i).

Konpontzeko betebeharra, 9.1.c).

Norberaren etxebizitza edo lokalean sarrera onartzea, 9.1.d).

Ordaintzea

Erreserba-funtsa, 9.1.f) eta xedapen gehigarria.

Gastu orokorrak, 9.1.e) eta 9.2.

[Ikus *Gastu orokorrak (ez ordaintzea)* eta *Jabea.*]

Jabeen batza

Aktak, 19.

Batzara joatea

Batzara agertu ez direnak, 17.1.

Boto-eskubiderik gabeko jabeak, 15.2.

Etxebizitza edo lokalen gainean, gozamina izatea, 15.1.

Hainbat jabek indibisioan pisuak edo lokalak izatea, 15.1.

Jabeak eurak edo haien legezko nahiz borondatezko ordezkariaren bidez, 15.1

Biltzea, 16.

Deialdia

Bigarren deialdia, 16.2.

Biltzeko betebeharra, 16.1.

Boto-eskubiderik gabeko jabeen zerranda, 15.2 eta 16.2.

Gai-zerrenda, 16.2.

Zitazioak, 9.1.h) eta 16.3.

Eginkizunak

Aurreikusteko moduko gastu eta sarreraren plana onestea, 14.b).

Aurrekontuak eta finka konpontzeko obra guztien beteazpena onestea, 14.c).

Erreklamazioak ebatzea, 14.a).

Estatutuak onetsi edo eraldatzea, eta barne eraentzari buruzko arauak zehaztea, 14.d).

Comunicar (a efectos de citaciones y notificaciones)

El domicilio en España, 9.1.h).

El cambio de titularidad de la vivienda o local, 9.1.i).

De reparación, 9.1.c).

Permitir la entrada en su vivienda o local, 9.1.d).

Contribución

Al fondo de reserva, 9.1.f) y disposición adicional.

A los gastos generales, 9.1.e) y 9.2.

[Véanse *Gastos generales (incumplimiento del pago)* y *Propietario.*]

Junta de propietarios

Actas, 19.

Asistencia

Ausentes a las juntas, 17.1.

Propietarios sin derecho de voto, 15.2.

Viviendas o locales en usufructo, 15.1.

Pisos o locales pertenecientes pro indiviso a distintos propietarios, 15.1.

Personal o por representante legal o voluntaria, 15.1.

Reunión, 16.

Convocatoria

Segunda, 16.2.

Obligatoriedad de reunirse, 16.1.

Relación de propietarios sin derecho de voto, 15.2 y 16.2.

Asuntos a tratar, 16.2.

Citaciones, 9.1.h) y 16.3.

Funciones

Aprobar el plan de gastos e ingresos previsibles, 14.b).

Aprobar los presupuestos y la ejecución de todas las obras de reparación, 14.c).

Resolver reclamaciones, 14.a).

Aprobar los estatutos o su reforma y determinar las normas de régimen interior, 14.d).

Gainerako arazoak aztertu eta erabakitzea, horiek erkidegoarentzat interes orokorrekoak diren heinean, 14.e).

Karguetan arituko direnak izendatu eta kargutik enkaitzea, 14.a).

Zatiketa edo eransketa onestea, 8.

Erabakiak

Akta-liburua, 19.

Aurkaratzea, 18.

Gehiengoak, 17.

Hartzea, 17.

Jakinartzea, 17.1.

Jasotzea, 19.

Legareen edo estatutuen aurkakoak, 18.a).

Oso kaltegarriak, 18.b).

Ziurtatzea, 19.

Ordezkatzea, 15.

(Ikus *Akta*, *Erabakiak*, *Erabakiak aurkaratzea* eta *Erkidegoaren gobernu-organoak*.)

Jabeen erkidegoa

Adostasuna, 11, 12, 16.

Batzara joatea, 15.

Betebeharrak, 10.1.

Erreserba-funtsa, 9.1.f).

Estatutuak, inskripzioa, 5.

Gobernu-organoak, 13.1.

Legareen aplikazioa, 2.a), 2.b) eta 1. xedapen iragankorra.

Ordezkatzea, 13.3.

Zatiketa-akzioa, 4.

Zorrak, 22.

Zorren gaineko erantzukizuna, 22.1.

(Ikus *Jabekidetasuna*.)

Jabe-erkidegoak elkartzea, 24.2.b).

Erabakiak hartzea, 24.3.b).

Erreserba-funtsak, 24.3.c).

Gobernu-organoen eskumenak, 24.3.

Jabeen batza, 24.3.a).

(Ikus *Ondasun higiezinaren eremu pribatuak*.)

Conocer y decidir en los demás asuntos de interés general para la comunidad, 14.e).

Nombrar y remover a los diferentes órganos, 14.a).

Aprobar la división o agregación, 8.

Acuerdos

Libro de actas, 19.

Impugnación, 18.

Mayorías, 17.

Adopción, 17.

Notificación, 17.1.

Constancia, 19.

Contrarios a la ley o a los estatutos, 18.a).

Gravemente perjudiciales, 18.b).

Certificación, 19.

Representación, 15.

(Véanse *Acta*, *Acuerdos*, *Impugnación de acuerdos* y *Órganos de gobierno de la comunidad*.)

Comunidad de propietarios

Consentimiento, 11, 12, 16.

Asistencia a junta, 15.

Obligaciones, 10.1.

Fondo de reserva, 9.1.f).

Estatutos, inscripción, 5.

Órganos de gobierno, 13.1.

Aplicación de la ley, 2.a), 2.b) y disposición transitoria 1.

Representante, 13.3.

Acción de división 4.

Deudas, 22.

Responsabilidad por deudas, 22.1.

(Véase *Copropiedad*.)

Agrupación de comunidades de propietarios, 24.2.b).

Adopción de acuerdos, 24.3.b).

Fondos de reserva, 24.3.c).

Competencias de los órganos de gobierno, 24.3.

Junta de propietarios, 24.3.a).

(Véase *Complejos inmobiliarios privados*.)

Jabekidea

Batzara joatea, 15.
(Ikus *Jabea*.)

Jabekidetasuna

Jabekidetasun-eskubidea, 3.
Zatiketa-akzioa, 4.
Zerbitzu erkideak, 3.

Jabetza Erregistroa

Akta-liburua, 19.1.
Elkartutako erkidegoa, 24.3.
Estatutuak, 5.
Jabetza Erregistroan inskribatutako titulu, 9.1.e).
Jabetza Erregistroan inskribatzea, 5, 8.

Jabetza horizontala

Administrazio-egintzak, 20.
Azkentzea, 23.
Eratzea, 2.
Eskubideak, 3.
Jabetza horizontalpean dauden osagaien destinoa aldatzea, 5, 12.
Kontzeptua, 1.
Titulua
Aldarazpena, 12.
Edukia, 5.
(Ikus *Jabetzaren titulu eratzailea*.)

Jabetzaren titulu eratzailea

Aldaraztea, 11 eta 12.
Borondatearen autonomia, 5.
Deskribatzea
Ondasun higiezinak, 5.
Pisua edo lokala, 5.
Edukia, 5.
Egitura nahiz fabrikari aldarazpenak egitzea, 12.
Eranskinak, 5.
Luze-zabala, mugak eta egoera, 5.
Onestea edo aldaraztea, 17.1.

Jakinaztea

Egoitza, 9.1.h).
Ukitutako jabeak, 15, 21.2.

Jarduerak

Arriskutsuak, 7.2.

Copropietario

Asistencia a Junta, 15.
(Véase *Propietario*.)

Copropiedad

Derecho de, 3.
Acción de división, 4.
Servicios comunes, 3.

Registro de la Propiedad

Libro de actas, 19.1.
Comunidad agrupada, 24.3.
Estatutos, 5.
Título inscrito en, 9.1.e).
Inscripción en el Registro de Propiedad, 5, 8.

Propiedad horizontal

Actos de administración, 20.
Extinción, 23.
Constitución, 2.
Derechos, 3.
Cambio de destino de elementos sometidos a, 5, 12.
Concepto, 1.
Título
Modificación, 12.
Contenido, 5.
(Véase *Título constitutivo de la propiedad*.)

Título constitutivo de la propiedad

Modificación, 11 y 12.
Autonomía de la voluntad, 5.
Descripción
Del inmueble, 5.
Del piso o local, 5.
Contenido, 5.
Alteraciones en la estructura o fábrica, 12.
Anejos, 5.
Extensión, linderos y situación, 5.
Aprobación o modificación, 17.1.

Notificación

Domicilio, 9.1.h).
A los propietarios afectados, 15, 21.2.

Actividades

Peligrosas, 7.2.

Debekatuak, 7.2.
Gogaikarriak, 7.2.
Kaltegarriak, 7.2.
Kaltegarriak, 7.2.
Osasungaitzak, 7.2.

Prohibidas, 7.2.
Molestas, 7.2.
Dañosas, 7.2.
Nocivas, 7.2.
Insalubres, 7.2.

K

Kalteak

Finkan, 7.2.
Ordaina eman beharra, 9.1.b) eta 9.1.c).

Zabarkeriaren ondorioz, 9.1.b).

Kalte-ordaina, 7.2.

Karguak

Hautatzea, 13, 14.
Iraupena, 13.7.
(Ikus *Enkaitzea*.)

Kautela-neurriak, 7, 18.4.

Konponketak

Arruntak, 9.1.c).
Bereziak, 9.1.c).
Betebeharrak, 9.
Presakoak, 7.1 eta 20.c).
Sarrera onartzea, 9.1.d).
Titulu eratzaila, 5.

Kontratua suntsiaraztea

Errentatzaileak, 7.2.
Jabeen batzak hala eskatuta, 7.2.

Kontuak

Jabeen batza, 16.1.

Kostuak

Ekitatezko epaiketa, 17.3.
Epaiketa bidezkoak eta epaiketaz kanpoko gastuak erreklamatzeko, 21.
Epaiketa monitorioan, 21.
Jabeen erkidegoaren aurka daudenak, 22.

Kuotak

Batzarako deialdia, 16.2.
Berrikuntzen alde ez daudenak, 11.2
Eskubideak, 3.

Daños

En finca, 7.2.
Obligación de resarcimiento, 9.1.b) y 9.1.c).
Por negligencia, 9.1.b).

Indemnización, 7.2.

Cargos

Elección, 13, 14.
Duración, 13.7.
(Véase *Remoción*.)

Medidas cautelares, 7, 18.4.

Reparaciones

Ordinarias, 9.1.c).
Extraordinarias, 9.1.c).
Obligaciones, 9.
Urgentes, 7.1 y 20.c).
Permiso de entrada, 9.1.d).
Título constitutivo, 5.

Resolución del contrato

Por el arrendador, 7.2.
A instancia de la Junta de propietarios, 7.2.

Cuentas

Junta de propietarios, 16.1.

Costas

Juicio de equidad, 17.3.
Judiciales y gastos extrajudiciales de reclamación, 21.
En juicio monitorio, 21.
Contra la comunidad de propietarios, 22.

Cuotas

Convocatoria de la Junta, 16.2.
Disidentes en las innovaciones, 11.2.
Derechos, 3.

Esleitzea, 3.
 Finkatzea, 5.
 Gastuen aurrekontua, 20.b).
 Kuotak aldatzea, zaitu edo eranstearen ondorioz, 8.
 Ordainketa-kuotak, 21.
 Ordaintzeko betebeharra, 9.1.e) eta 9.1.f).
 Titulu eratzaila, 5.
 Zamak, 3.

Asignación, 3.
 Fijación, 5.
 Presupuesto de gastos, 20.b).
 Alteración en la división o agregación, 8.
 De pago, 21.
 Obligación de pago, 9.1.e) y 9.1.f).
 Título constitutivo, 5.
 Cargas, 3.

L

Laudoa

Kuota finkatzea, 5.

Legitimazioa

Ondasun erkideen gaineko jabeek duten legitimazioa, 13.

Lehendakaria

Beste lehendakari bat izendatzea, 13.2.
 Epaiketa bidez edo epaiketaz kanpo ordezkatzea, 13.3.
 Epea, 13.7.
 Hautatzea, 13.2, 14.
 Idazkariaren eta administratzailearen eginkizunak, 13.5.
 Izendatzeko ezintasuna, 13.2.
 Jabeen batzarako deialdia, 16.1.
 Kargutik enkaitzea, 13.7.
 Legitimazio prozesala, 13.
 Uko egitea, 13.2.
 (Ikus *Erkidegoaren gobernu-organoak*.)

Lehendakariordea

Aukerakoa izatea, 13.4.
 Eginkizunak, 13.4.
 Epea, 13.7.
 Izendatzea, 13.2 eta 13.4.
 Kargutik enkaitzea, 13.7.

Lehenespeneko kredituak

Kuotak ez ordaintzeagatik, 9.1.e).

Lokalak

Aldarazpenak, 12.

Laudo

Fijación de la cuota, 5.

Legitimación

De propietarios sobre bienes comunes, 13.

Presidente

Relevo, 13.2.
 Representación judicial y extrajudicial, 13.3.
 Plazo, 13.7.
 Elección, 13.2, 14.
 Ejercicio de las funciones del Secretario y del Administrador, 13.5.
 Imposibilidad de designación, 13.2.
 Convocatoria de la junta de propietarios, 16.1.
 Remoción del cargo, 13.7.
 Legitimación procesal, 13.
 Renuncia, 13.2.
 (Véase *Órganos de gobierno de la comunidad*.)

Vicepresidente

Existencia facultativa, 13.4.
 Funciones, 13.4.
 Plazo, 13.7.
 Nombramiento, 13.2 y 13.4.
 Remoción del cargo, 13.7.

Créditos preferentes

Por impago de cuotas, 9.1.e).

Locales

Alteraciones, 12.

Jabekideen batza, 14.
Kontzeptua, 1.
Lokalen gaineko jabekidetasuna, 3.b).
Ondasun higiezinaren eremu pribatuak, 24.
Titulu eratzaila, 5.
Zatitu eta eranstea, 8.

Luze-zabala

Kuota finkatzea, 5.

Junta de propietarios, 14.
Concepto, 1.
Coproiedad sobre, 3.b).
Complejos inmobiliarios privados, 24.
Título constitutivo, 5.
División y agregación, 8.

Superficie

Fijación de la cuota, 5.

M

Mantentzea

Administratzailearen eginkizunak, 20.c).

Minusbaliatuak, 17.1.

(Ikus *Oztopo arkitektonikoak ezabatzea*.)

Modu independentean aprobetxatzea

Espazio mugatua eta modu independentean aprobetxa daitekeena, 1, 3.

Jabetza, 3.

Zatitu edo eranstea, 8.

Mugak

Titulu eratzaila, 5.

Murruak, 1.

Entreteneamiento

Funciones del Administrador, 20.c).

Minusválidos, 17.1.

(Véase *Supresión de barreras arquitectónicas*.)

Aprovechamiento independiente

Espacio delimitado y susceptible, 1, 3.

Propiedad, 3.

División y agregación, 8.

Linderos

Título constitutivo, 5.

Muros, 1.

N

Nahitaezko auzikidetzatza pasiboa

Jabetza horizontalpeko eraikinean lokalaren jabe diren erkideena, 13.

Lehendakariak jabeekikoa, 13.

Saltzaileak jabeekikoa, 13.

Narriadurak

Kuota ez aldatzea, 3.

Litisconsorcio pasivo necesario

De los comuneros propietarios de local en edificio en propiedad horizontal, 13.

De Presidente con propietarios, 13.

De vendedor con propietarios, 13.

Menoscabos

Inalterabilidad de la cuota, 3.

O

Obra bereziak

Jabeen batza, 14.c).

Obras extraordinarias

Junta de propietarios, 14.c).

Obrak

- Artapen-obrak, 11.
- Berrikuntza-obrak, 10, 11.
- Erkidegoarentzat nahitaezkoak direnak, 10.1.
 - Aurka jartzea eta atzeratzea, 10.3.
 - Gastuak, 10.5.
 - Obren izaerari buruzko desadostasuna, 10.4.
- Hobekuntza-obrak
 - Jabetza horizontalean dagoen eraikinen gain eragina dutenak, 7.1, 9.3, 10, 11, 12 eta 17.
- Irisgarritasun-obrak
(Ikus *Irisgarritasuna*.)
- Jabeak egindakoak, 7.1 eta 12.
- Konponketa-obrak
 - Erkidegoaren ardurapekoak, 10.
 - Jabearen ardurapekoak, 9.1.b).
- Osagai erkideetan, 7.1 eta 12.

Ohartarazpena

- Administratzailearen eginkizunak, 20.a).
- Debekatutako jardueren ondorioz, 7.2.

Okupatzailea

- Debekatutako jardueren ondoriozko ohartarazpena, 7.2.
- Jabea ez den okupatzailea botatzea, 7.2.

Ondasun higiezinari aurre egitea (saneamendua), 9.1.e).**Ondasun higiezinaren eremu pribatuak**

- Aplikatu beharreko legea, 2.c).
 - Betekizunak, 24.1.
 - Bideak, 24.1.b).
 - Horiek izan ditzaketan formak
 - Bestelakoak, 24.4.
 - Jabe-erkidegoak elkartzeari, 24.2.b).
 - Jabeen erkidego bakarra, 5 eta 24.2.a).
- (Ikus *Jabe-erkidegoak elkartzeari*.)

Ordaintzea

- Administratzailearen eginkizunak, 20.d).

Obras

- De conservación, 11.
- De innovación, 10, 11.
- Obligatorias para la comunidad, 10.1.
 - Oposición y demora, 10.3.
 - Gastos, 10.5.
 - Discrepancia sobre su naturaleza, 10.4.
- De mejora
 - Afectantes a edificio en régimen de propiedad horizontal, 7.1, 9.3, 10, 11, 12 y 17.
- De accesibilidad
(Véase *Accesibilidad*.)
- Hechas por el propietario, 7.1 y 12.
- De reparación
 - A cargo de la comunidad, 10.
 - A cargo del propietario, 9.1.b)
- En elementos comunes, 7.1 y 12.

Apercibimiento

- Funciones del Administrador, 20.a).
- Por actividades prohibidas, 7.2.

Ocupante

- Apercibimiento por actividades prohibidas, 7.2.
- Lanzamiento del ocupante no propietario, 7.2.

Sostenimiento del inmueble (saneamiento), 9.1.e).**Complejos inmobiliarios privados**

- Ley aplicable, 2.c).
 - Requisitos, 24.1.
 - Viales, 24.1.b).
 - Formas que pueden adoptar
 - Otras, 24.4.
 - Agrupación de comunidades de propietarios, 24.2.b).
 - Comunidad de propietarios única, 5 y 24.2.a).
- (Véase *Agrupación de comunidades de propietarios*.)

Pago

- Funciones del Administrador, 20.d).

Kuotak eta gastuak, 9.1.e) eta f), eta 21.
Ondasun erkideak, 3.b).

Ordezkaritza

Batzara joateko, 15.1.
Gozamena, 15.1.
Lehendakaria, 13.3.
Ondasun higiezinaren eremu pribatuak,
24.3.a).
Pisua indibisoan, 15.1.

Osagai erkideak

Errentan ematea, 17.1.
Errespetatzeko betebeharra, 9.a).
Legearen aplikazio-eremua, 2.b).
Obrak, 7 eta 12.
(Ikus *Obrak*).
Partaidetza-kuota, 5.

Osagai pribatiboak, 3.

Oztopo arkitektonikoak

(Ikus *Oztopo arkitektonikoak ezabatzea*.)

Oztopo arkitektonikoak ezabatzea

Erabakiak hartzea, 17.1.

P

Partaidetza-kuota, 5, 9.1, 16.

Aldatzea, 3, 8, 11, 12.

Pisua edo lokala gastuen ordainketari lotuta egotea, 9.1.e).

Pisuak edo lokalak

Egoera, 5.
Erkidegoaren araubidea, 6.
Jabetzaren titulua, edukia, 5.
Jarduerak burutzea, 7.2.
Kuota finkatzea, 5.
Osagai arkitektonikoen, instalazioen edo zerbitzuen aldarazpena, 7.1.
Partaidetza-kuota, 3.b).
Sarrera onartzea, 9.1.b).
Zatitzea edo eranstea, 8.

Putzuak, 1.

De cuotas y gastos, 9.1.e) y f), y 21.
Pertenenencias comunes, 3.b).

Representación

Para asistir a junta, 15.1.
Usufructo, 15.1.
Presidente, 13.3.
Complejos inmobiliarios privados, 24.3.a).
Piso pro indiviso, 15.1.

Elementos comunes

Arrendamiento, 17.1.
Obligación de respeto, 9.a).
Ámbito de aplicación de la ley, 2.b).
Obras, 7 y 12.
(Véase *Obras*.)
Cuota de participación, 5.

Elementos privativos, 3.

Barreras arquitectónicas

(Véase *Supresión de barreras arquitectónicas*.)

Supresión de barreras arquitectónicas

Adopción de acuerdos, 17.1.

Cuota de participación, 5, 9.1, 16.

Variación, 3, 8, 11, 12.

Afección de piso o local al pago de gastos, 9.1.e).

Pisos o locales

Situación, 5.
Régimen de la comunidad, 6.
Título de la propiedad, contenido, 5.
Desarrollo de actividades, 7.2.
Fijación de cuota, 5.
Modificación de los elementos arquitectónicos, instalaciones o servicios, 7.1.
Cuota de participación, 3.b).
Consentir la entrada en, 9.1.b).
División o agregación, 8.

Pozos, 1.

S

Sarrera

Onartzea, 9.1.d).

Sarrerak

Jabeen batza, 14.b).

Solairu berriak

Ahobatezkotasuna, 12.

Erabakiak, 12.

Eraikitzea, 12.

Sotoa

Titulu eratzaila, 5.

Entrada

Permiso de, 9.1.d).

Ingresos

Junta de propietarios, 14.b).

Nuevas plantas

Unanimidad, 12.

Acuerdos, 12.

Construcción, 12.

Sótano

Título constitutivo, 5.

T

Telekomunikazio-zerbitzuak eskuratzeko azpiegitura erkideak

Jartzeko erabakia, 17.2.

Infraestructuras comunes de acceso a los servicios de telecomunicación

Acuerdo de instalación, 17.2.

U

Ugazaba

(Ikus *Jabea*.)

Dueño

(Véase *Propietario*.)

Z

Zabarkeria

Kalteak, 9.1.b).

Ordaina eman beharra, 9.1.b).

Zamak

Kuotaren arabera, 3.

Gastu orokorrak, 9.1.e).

Ondasun higiezinarenak

Jabetza horizontalean eraiki izanaren ondoriozkoak, 1.

Parte hartzea, 9.1.e).

Zati pribatiboak

Egoera onean artatzea, 9.b).

Legearen aplikazio-eremua, 2.b).

Negligencia

Daños, 9.1.b).

Obligación de resarcimiento, 9.1.b).

Cargas

Conforme a la cuota, 3.

Gastos generales, 9.1.e).

Del inmueble

Derivados de construcción del inmueble en propiedad horizontal, 1.

Contribución, 9.1.e).

Partes privativas

Mantenimiento en buen estado, 9.b).

Ámbito de aplicación de la ley, 2.b).

Zatitzea

- Eraikina, pisuak edo lokalak adjudikatzearen bidez, 1.
- Pisu, lokal eta eranskinak, 8.
(Ikus *Akzioa. Zatiketa-akzioa.*)

Zerbitzuak

- Administratzailearen eginkizunak, 20.a).
- Aldaraztea, 7.
- Arruntak, 3.
- Deskripzioa, 5.
- Eskatzea, 10.
- Ez erabiltzea, 9.2.
- Kuota finkatzea, 5.
- Obrak, 7.
- Parte-hartzea, 9.1.e).
- Zatiketa-akzioa, 4.

Zimenduak, 1.

Zitazioa

- Deialdia, 9.1.h) eta 16.3.
(Ikus *Jabeen batza.*)

Ziurtagiria

- Zorra onetsi duen erabakiari buruzkoa, 21.2.
- Zorren egoerari buruzkoa eskualdaketa-kasuan, 9.1.e).

Zorrak

- Erkidegoarenak, 22.
- Jabearenak, 21.

Zuloak, 1.

División

- De edificio mediante adjudicación de pisos o locales, 1.
- Pisos, locales y anejos, 8.
(Véase *Acción de división.*)

Servicios

- Funciones del Administrador, 20.a).
- Modificación, 7.
- Comunes, 3.
- Descripción, 5.
- Exigencia, 10.
- No utilización, 9.2.
- Fijación de la cuota, 5.
- Obras, 7.
- Contribución, 9.1.e).
- Acción de división, 4.

Cimentaciones, 1.

Citación

- Convocatoria, 9.1.h) y 16.3.
(Véase *Junta de Propietarios.*)

Certificación

- Del acuerdo aprobatorio de la deuda, 21.2.
- Sobre estado de deudas en caso de transmisión, 9.1.e).

Deudas

- De la comunidad, 22.
- Del propietario, 21.

Fosos, 1.

§2.
Ley 29/1994, de 24 de noviembre,
de Arrendamientos Urbanos

§2.
Azaroaren 24ko 29/1994 Legea,
Hiri-errentamendua

§2. LEY 29/1994, DE 24 DE NOVIEMBRE, DE ARRENDAMIENTOS URBANOS ..	121
Preámbulo	121
Título I Ámbito de la ley	136
Título II De los arrendamientos de vivienda	139
Capítulo I Normas generales	139
Capítulo II De la duración del contrato	140
Capítulo III De la renta	149
Capítulo IV De los derechos y obligaciones de las partes	153
Capítulo V De la suspensión, resolución y extinción del contrato	158
Título III De los arrendamientos para uso distinto del de vivienda	160
Título IV Disposiciones comunes	164
Título VI Procesos arrendaticios	166
Disposiciones adicionales	166
Primera	166
Segunda	168
Tercera	168
Cuarta	169
Quinta	169
Sexta	172
Séptima	173
Octava	173
Novena	174
Décima	174
Disposiciones transitorias	174
Primera	174
Segunda	176
Tercera	187
Cuarta	198
Quinta	199
Sexta	199
Disposición derogatoria	200
Disposiciones finales	200
Primera	200
Segunda	200
Tercera	201
Cuarta	201
Índices analíticos	203
Castellano-euskera	205
Euskera-castellano	221

§2. AZAROAREN 24ko 29/1994 LEGEA, HIRI-ERRENTAMENDUENA	121
Atariko	121
I. titulua Legearen eremua	136
II. titulua Etxebizitza-errentamenduak	139
I. kapitulua Arau orokorrak	139
II. kapitulua Kontratuaren iraupena	140
III. kapitulua Errenta	149
IV. kapitulua Alderdien eskubideak eta betebeharrak	153
V. kapitulua Kontratua etetea, suntsiaraztea eta azkentzea	158
III. titulua Etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduak	160
IV. titulua Xedapen erkideak	164
V. titulua Errentamendu-prozesuak	166
Xedapen gehigarriak	166
Lehenengoa	166
Bigarrena	168
Hirugarrena	168
Laugarrena	169
Bosgarrena	169
Seigarrena	172
Zazpigarrena	173
Zortzigarrena	173
Bederatzigarrena	174
Hamargarrena	174
Xedapen iragankorrek	174
Lehenengoa	174
Bigarrena	176
Hirugarrena	187
Laugarrena	198
Bosgarrena	199
Seigarrena	199
Xedapen indargabetzailea	200
Azken xedapenak	200
Lehenengoa	200
Bigarrena	200
Hirugarrena	201
Laugarrena	201
Aurkibide analitikoak	203
Gaztelania-euskara	205
Euskara-gaztelania	221

Ley 29/1994, de 24 de noviembre de Arrendamientos Urbanos

(«BOE» n.º 282,
de 25 de noviembre)

PREÁMBULO

1

El régimen jurídico de los arrendamientos urbanos se encuentra en la actualidad regulado por el texto refundido de la Ley de Arrendamientos Urbanos de 1964, aprobado por el Decreto 4104/1964, de 24 de diciembre.

Los principios que inspiraron la reforma de la ley arrendaticia llevada a cabo en 1964, según reza la Exposición de Motivos de la Ley 40/1964, fueron los de atemperar el movimiento liberalizador de la propiedad urbana a las circunstancias económicas del país y a las exigencias de la justicia. Sin embargo, el texto refundido no llegó a alcanzar sus objetivos de desbloquear la situación de las rentas congeladas. El citado texto consagró, además, un régimen de subrogaciones, tanto inter vivos como mortis causa, favorable a los intereses del arrendatario.

Ambas circunstancias determinaron un marco normativo que la práctica ha puesto de manifiesto que fomentaba escasamente la utilización del instituto arrendaticio.

Ante estas circunstancias, el Real Decreto-ley 2/1985, de 30 de abril, so-

Azaroaren 24ko 29/1994 Legea, Hiri-errentamenduen

(EAO, 282. zk.,
1994ko azaroaren 25ekoa)

ATARIKOA

1

Gaur egun, hiri-errentamenduen araubidea Hiri-errentamenduen 1964ko Legearen Testu Bateginak, abenduaren 24ko 4104/1964 Dekretuaren bidez onetsiak, arautzen du.

Errentamenduei buruzko legearen inguruan 1964an egindako eraldaketak oinarrian izan zuen printzipioa, 40/1964 Legeko zioen azalpenaren arabera, hauxe zen: hiri-jabetzaren mugimendu askatzailea egokitzea, estatuko inguruabar ekonomikoak eta justiziaren betekizunak kontuan hartuta. Hala ere, testu bateginak ez zuen lortu errenta izoztuen egoera desblokeatzeko helburua. Horrez gain, aipatu testuak subrogazioen araubidea jaso zuen, bai inter vivos, bai mortis causa, errentariaren interesen mesederako.

Bi inguruabarron eraginez, arauen esparrua zehaztu zen, eta, praktikan, argi geratu da esparru horrek gutxi bultzatzen zuela errentamenduen erakundea erabiltzea.

Inguruabar horien aurrean, apirilaren 30eko 2/1985 Errege Dekretu-legeak,

bre Medidas de Política Económica, introdujo dos modificaciones en la regulación del régimen de los arrendamientos urbanos que han tenido un enorme impacto en el desarrollo posterior de este sector. Estas modificaciones fueron la libertad para la transformación de viviendas en locales de negocio y la libertad para pactar la duración del contrato, suprimiendo el carácter obligatorio de la prórroga forzosa en los contratos de arrendamientos urbanos.

El Real Decreto-ley 2/1985 ha tenido resultados mixtos. Por un lado, ha permitido que la tendencia a la disminución en el porcentaje de viviendas alquiladas que se estaba produciendo a principios de la década de los ochenta se detuviera, aunque no ha podido revertir sustancialmente el signo de la tendencia. Por otro lado, sin embargo, ha generado una enorme inestabilidad en el mercado de viviendas en alquiler al dar lugar a un fenómeno de contratos de corta duración. Esto a su vez ha producido un movimiento de incremento de las rentas muy significativo, que se ha visto agravado por simultaneidad en el tiempo con un período de elevación de los precios en el mercado inmobiliario.

En la actualidad, el mercado de los arrendamientos urbanos en vivienda se caracteriza por la coexistencia de dos situaciones claramente diferenciadas. Por un lado, los contratos celebrados al amparo del Real Decreto-ley 2/1985, que representan aproximadamente el 20 por 100 del total y se caracterizan por tener rentas elevadas y un importante grado de rotación ocupacional por consecuencia de su generalizada

Política Ekonomikoko Neurriei buruzkoak, bi aldaketa egin zituen hiri-errentamenduen araubidean. Aldaketok eragin handia izan dute sektore horren gerroagoko garapenean. Aldaketa horiek izan ziren etxebizitzak negozio-lokal bihurtzeko askatasuna, eta kontratuaren iraupena ituntzeko askatasuna, hiri-errentamenduen kontratuetan nahitaezko luzapenaren derrigorrezko izaera ezabatuta.

2/1985 Errege Dekretu-legeak askotariko emaitzak izan ditu. Batetik, horri esker geldiarazi da laurogeiko hamarkadaren hasieran zegoen joera, alegia, alokatutako etxebizitzaren ehuneko jaistekoa; baina joera horren norabidea ezin izan da aldatu. Xedapen horrek, bestetik, ezegonkortasun handia eragin du alokatutako etxebizitzaren merkatuan, iraupen laburreko kontratuen fenomeno sortu du eta. Horrekin batera, errentak modu esanguratsuan handitu dira, eta, egoera areago okertzeko, aldi berean ondasun higiezinaren merkatuko prezioak igo egin dira.

Gaur egun, etxebizitzaren hiri-errentamenduen merkatuan badira egoera bi, argi eta garbi bereizten direnak, eta aldi berean gertatzen direnak. Hasteko, badira 2/1985 Errege Dekretu-legearen babesean egindako kontratuak, kontratu guztien 100eko 20 gutxi gorabehera; kontratu horiek errenta handiak dituzte, eta okupazioa askotan txandakatzen da, kontratuok orokorrean urtebeteko iraupena izaten dutelako. Jarraitzeko, ba-

duración anual. Por el otro, los contratos celebrados con anterioridad a la fecha de entrada en vigor del Real Decreto-ley 2/1985. En general, se trata de contratos con rentas no elevadas y, en el caso de los contratos celebrados con anterioridad a la Ley de 1964, aproximadamente el 50 por 100 del total, con rentas que se pueden calificar como ineconómicas.

Las disfunciones que esta situación genera en el mercado son tales que han convertido el arrendamiento en una alternativa poco atractiva frente a la de la adquisición en propiedad en relación con la solución del problema de la vivienda. En este sentido, solo un 18 por 100 aproximadamente del parque total de viviendas se encuentra en régimen de alquiler.

Por ello, la finalidad última que persigue la reforma es la de coadyuvar a potenciar el mercado de los arrendamientos urbanos como pieza básica de una política de vivienda orientada por el mandato constitucional consagrado en el artículo 47, de reconocimiento del derecho de todos los españoles a disfrutar de una vivienda digna y adecuada.

La consecución de este objetivo exige una modificación normativa que permita establecer un equilibrio adecuado en las prestaciones de las partes, y aunque es evidente que el cambio normativo por sí mismo no constituye una condición suficiente para potenciar la oferta en este sector, sí es una condición necesaria para que ello se produzca.

La regulación sustantiva del contrato de arrendamiento debe partir de una cla-

dira 2/1985 Errege Dekretu-legea indarrean jarri aurretik egindako kontratuak. Oro har, kontratuok ez dituzte errenta oso handiak, eta, 1964ko Legearen aurretik egindako kontratuen kasuan, kontratu guztien 100eko 50ek, gutxi gorabehera, badituzte ez-ekonomikotzat jo daitezkeen errentak.

Egoera horrek disfuntzio handiak eragin ditu merkatuan; disfuntzio handi horien eraginez, errentamenduaren alternatiba ez da oso erakargarria etxebizitzaren arazoa konpontzeko, jabetza eskuratzearen aurrean. Esangura horretan, etxebizitza guztien 100eko 18 inguru soilik dago alokatuta.

Horregatik, eraldaketaren azken xedea da hiri-errentamenduen merkatua bultzatzen laguntzea, horixe baita, izan ere, Konstituzioaren 47. artikuluko manuaik norabidetutako etxebizitza-politikaren oinarritzko osagaia. Manu horren arabera, espainiar guztiek eskubidea dute etxebizitza duin eta egokia izateko.

Helburu hori erdiesteko, beharrezkoa da arauak aldatzea, alderdien prestazioetan oreka egokia ezarri ahal izateko. Argi dago arauen aldaketa hutsa ez dela nahikoa sektore horretako eskaintza bultzatzeko; baina beharrezko baldintza da, horrelakoa gerta dadin.

Errentamendu-kontratuaren arauketa substantiboaren abiapuntua izan be-

ra diferenciación de trato entre los arrendamientos de vivienda y los destinados a cualquier otro uso distinto del de vivienda, por entender que las realidades económicas subyacentes son sustancialmente distintas y merecedoras, por tanto, de sistemas normativos disímiles que se hagan eco de esa diferencia.

En este sentido, al mismo tiempo que se mantiene el carácter tuitivo de la regulación de los arrendamientos de vivienda, se opta en relación con los destinados a otros usos por una regulación basada de forma absoluta en el libre acuerdo de las partes.

Además, la ley contiene una reforma parcial de la regulación de los procesos arrendaticios y la modificación del régimen de los contratos actualmente en vigor.

2

La regulación de los arrendamientos de vivienda presenta novedades significativas, fundamentalmente en relación con su duración. En este sentido, se ha optado por establecer un plazo mínimo de duración del contrato de cinco años, por entender que un plazo de estas características permite una cierta estabilidad para las unidades familiares que les posibilita contemplar el arrendamiento como alternativa válida a la propiedad. Al mismo tiempo, no es un plazo excesivo que pudiera constituir un freno para que tanto los propietarios privados como los promotores empresariales sitúen viviendas en este mercado.

har da etxebizitza-errentamenduen eta etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduen tratamenduar argi bereiztea. Izan ere, funtsezko errealitate ekonomikoak, bi kasuotan, erabat desberdinak dira, eta, beraz, batak eta besteak arau-sistema desberdinak behar dituzte, hau da, desberdintasun hori kontuan hartzen dutenak.

Ildo horretatik, etxebizitza-errentamenduen arauketak bere babes-izaerari eutsiko dio. Eta, aldi berean, beste erabilera batzuetara bideratutako errentamenduei dagokienez, alderdien arteko hitzarmen askean erabat datzan arauketa hautatu da.

Horrez gain, legeak jaso ditu errentamendu-prozesuei buruzko arauketaren zatikako eraldaketa eta egun indarrean dauden kontratuen araubidearen aldaketa.

2

Etxebizitza-errentamenduen arauketak berrikuntza esanguratsua ditu, batez ere, iraupenari dagokionez. Esangura horretan, kontratuaren iraupena gutxienez bost urtekoa izatea ezarri da, mota horretako epeak familia-unitateei nolabaiteko egonkortasuna ematen dielako, eta, horri esker unitateok jabetzaren baliozko alternatiba gisa ikusten dutelako errentamendua. Era berean, ez da gehiegizko epea, ez baitu oztoporik jartzen, jabe pribatuek eta enpresasustatzaileek merkatu horretan etxebizitzak jartzeko.

Este plazo mínimo de duración se articula a partir del libre pacto entre las partes sobre la duración inicial del contrato más un sistema de prórrogas anuales obligatorias hasta alcanzar el mínimo de cinco años de duración, si el pacto inicial hubiera sido por un plazo inferior.

Se introduce también en la ley un mecanismo de prórroga tácita, transcurrido como mínimo el plazo de garantía de cinco años, que da lugar a un nuevo plazo articulado asimismo sobre períodos anuales, de tres años.

El reconocimiento de la existencia de situaciones que exigen plazos inferiores de duración ha hecho que la ley prevea esta posibilidad, aunque vinculada en exclusiva a la necesidad, conocida al tiempo de la celebración del contrato, de recuperar el uso de la vivienda arrendada para domicilio del propio arrendador.

El establecimiento de un plazo de duración limitado permite mitigar el impacto que el instituto de las subrogaciones pudiera tener sobre el equilibrio de las prestaciones. En la medida en que el derecho de las personas subrogadas a continuar en el uso de la vivienda arrendada sólo se mantiene hasta la terminación del plazo contractual, no existe inconveniente en mantener dicho derecho en el ámbito *mortis causa* a favor de aquellas personas con vinculación directa con el arrendatario. Destaca como novedad el reconocimiento de este derecho al conviviente *more uxorio*.

Gutxieneko iraupen-epe hori ezartzeko, sistema jakin bat hartzen da abiapuntu, hau da, kontratuaren hasierako iraupenari buruz alderdien artean egindako itun askea gehi nahitaezko urteko luzapenen sistema, epea gutxienez bost urtekoa izan arte, baldin eta hasierako itunaren iraupena laburragoa izan bada.

Legean isilbidezko luzapen-mekanismoa ere gehitu da, gutxienez bost urteko berme-epea igaro ondoren. Mechanismo horrek beste epe bat sortzen du, alegia, urteko aldietan datzana, hiru urtekoa.

Aintzat hartu behar da badirela iraupen-epe laburragoak behar dituzten egoerak, eta legeak aukera hori ezarri du, baldin eta kontratua egiteko unean jakina bada errentatzaileak errentan emandako etxebizitza berreskuratu behar duela bera bertan bizitzeko.

Iraupen-epe mugatua ezartzean, leundu egiten da subrogazioen erakundeak prestazioen orekaren gainean izan dezakeen eragina. Subrogatutako pertsonak badute eskubidea errentapeko etxebizitza erabiltzen jarraitzeko; bada, eskubide horrek irauten du kontratuaren epea bukatu arte. Baina ez dago inongo oztoporik eskubide horri *mortis causa* eremuan eusteko, errentariarekin zuzeneko lotura duten pertsonen mesederako. Berrikuntza gisa, nabarmentzekoa da eskubide hori *more uxorio* bizikideari aitortzea.

En relación con las subrogaciones inter vivos, sólo se reconoce su existencia previo consentimiento escrito del arrendador. Al mismo tiempo, se introduce una novedad en casos de resoluciones judiciales que, en procesos de nulidad, separación o divorcio, asignen la vivienda al cónyuge no titular. En estos casos, se reconoce *ex lege* a dicho cónyuge el derecho a continuar en el uso de la vivienda arrendada por el tiempo que restare de contrato.

El régimen de rentas se construye en torno al principio de la libertad de pactos entre las partes para la determinación de la renta inicial tanto para los contratos nuevos como para aquéllos que se mantengan con arrendatarios ya establecidos. Esto asegurará, cuando ello sea preciso, que las rentas de los contratos permitan reflejar la realidad del mercado, si esta realidad no hubiera podido trasladarse a la renta por la vía de las actualizaciones previstas. Ello puede ser así, dado que la norma establece un mecanismo de actualización de rentas vinculado a las variaciones porcentuales que pueda experimentar en un período anual el Índice de Precios al Consumo.

Por lo que se refiere a los derechos y obligaciones de las partes, la ley mantiene en líneas generales la regulación actual, sin introducir grandes novedades. Se exceptúa el establecimiento de una previsión especial para arrendatarios afectados de minusvalías o con personas minusválidas a su cargo, que pretendan efectuar modificaciones en la

Inter vivos subrogazioei dagokienez, horiek onartzen dira, aldez aurretik errentatzaileak horietarako idatzizko adostasuna eman behar duenean. Era berean, berrikuntza bat gehitu da ebazpen judizialen kasuetan, horiek deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesuetan etxebizitza esleitzen badiote titularra ez den ezkontideari. Kasu horietan, ezkontide horri *ex lege* aitortzen zaio eskubidea errentapeko etxebizitza erabiltzen jarraitzeko, kontratua bukatzeko geratzen den denboran.

Errenten araubidea printzipio jakin baten inguruan eraiki da, hau da, hasierako errenta zehazteko alderdien artean dagoen itun-askatasunari buruzko printzipioaren inguruan, bai kontratu berrietan, bai aurretik zehaztutako errentariek ingandakoetan. Modu horretan, beharrezkoa denean bermatuko da kontratuetakoko errenten bidez merkaturako errealtateak islatzea, baldin eta ezarritako eguneratzeen bidez ezinezkoa izan bada errealtate hori errentan jasotzea. Hori horrela izan daiteke, arauan errentak eguneratzeko mekanismoa ezarri delako, Kontsumoko Prezioen Indizeak urtebeteko aldia izan ditzakeen ehuneko-aldaketei lotuta.

Alderdien eskubide eta betebeharrei dagokienez, legeak, oro har, gaur egungo arauetari eutsi dio, berrikuntza handirik erantsi gabe. Baina ezarpen berezia egin da errentariak minusbaliatutasunen bat duenetan, edo errentariek euren ardurapean pertsona minusbaliatuak dituzten kasuetarako, baldin eta finkan aldaketak egin nahi

finca arrendada que les permitan mejorar la utilización de la misma.

También se mantiene el derecho de adquisición preferente en favor del arrendatario para el supuesto de enajenación de la vivienda arrendada durante la vigencia del arrendamiento aunque referido a condiciones de mercado, por entenderse que constituye un instrumento que sin suponer una grave onerosidad para el arrendador incrementa las posibilidades de permanencia del arrendatario en la vivienda.

Por último, por lo que se refiere a la formalización de los contratos, la ley mantiene la libertad de las partes de optar por la forma oral o escrita. Al mismo tiempo, se consagra expresamente la posibilidad de todos los contratos de arrendamiento, cualquiera que sea su duración, de acceder al Registro de la Propiedad, intentando, por otro lado, potenciar esta posibilidad de acceso mediante la vinculación de determinadas medidas de fomento o beneficio al hecho de la inscripción. Este hecho no sólo contribuye a reforzar las garantías de las partes, sino que incrementa la información disponible para el Estado, permitiéndole el diseño y ejecución de aquellas medidas que puedan contribuir a la mejora de la ordenación normativa y de la práctica de los arrendamientos.

3

La Ley abandona la distinción tradicional entre arrendamientos de vivienda y arrendamientos de locales de

badituzte, berori hobeto erabili ahal izateko.

Lehenespenez eskuratzeko eskubidea aitortu da errentariaren mesederako, errentan emandako etxebizitza errentamenduaren indarraldian besterentzen den kasuan, baina merkatuko baldintzei lotuta. Ulertu ere, ulertzen da eskubide hori tresna dela, alegia, errentatzailearentzat kostu handiegirik ekarri gabe, errentariak etxebizitzan irauteko aukerak handitzen dituen tresna.

Amaitzeko, kontratuen formalizazioari dagokionez, legeak alderdiei askatasuna eman die ahozko edo idatzizko modua hautatzeko. Era berean, beraiazko aukera ezarri da errentamendu-kontratu guztiak, horien iraupena gorabehera, Jabetza Erregistroan jaso ahal izateko. Beste alde batetik, jasoak izateko aukera hori bultzatzeko, sustapen edo etekin-neurri jakin batzuk inskripzioa egitatearekin lotu dira. Egitate horrek alderdien bermeak indartu ez ezik, estatuak eskura duen informazioa ere handitzen du, eta, horrela, estatuak diseina eta betearaz ditzake neurri jakin batzuk, alegia, arauen antolamendua eta errentamenduen praktika hobetzen lagundu dezaketen neurriak.

3

Legeak alde batera utzi du joera jakin bat, alegia, etxebizitza-errentamenduak eta negozio-lokalak eta horiekin

negocio y asimilados para diferenciar entre arrendamientos de vivienda, que son aquellos dedicados a satisfacer la necesidad de vivienda permanente del arrendatario, su cónyuge o sus hijos dependientes, y arrendamientos para usos distintos al de vivienda, categoría ésta que engloba los arrendamientos de segunda residencia, los de temporada, los tradicionales de local de negocio y los asimilados a éstos.

Este nuevo categorismo se asienta en la idea de conceder medidas de protección al arrendatario sólo allí donde la finalidad del arrendamiento sea la satisfacción de la necesidad de vivienda del individuo y de su familia, pero no en otros supuestos en los que se satisfagan necesidades económicas, recreativas o administrativas.

Para ello, en la regulación de los arrendamientos para uso distinto al de vivienda, la ley opta por dejar al libre pacto de las partes todos los elementos del contrato, configurándose una regulación supletoria del libre pacto que también permite un amplio recurso al régimen del Código Civil.

Se regulan así, con carácter supletorio de la voluntad expresa de arrendador y arrendatario, el régimen de obligaciones de conservación y obras, el derecho de adquisición preferente, el de traspaso y las subrogaciones *mortis causa*, aunque limitadas al cónyuge e hijos del arrendatario que continúan la actividad.

Se introduce en esta regulación una novedad consistente en el derecho del

berdinetisitako errentamenduak bereizteko ohiko joera; hartara bereizten ditu, batetik, etxebizitza-errentamenduak, errentariaren, ezkontidearen edo horren mendeko seme-alaben etxebizitza-beharrizan iraunkorra asetzen dutenak, eta, bestetik, etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduak, barnean hartzen dituztenak bigarren bizilekuen errentamenduak, denboraldi batekoak, negozio-lokalenak eta horiekin berdinetisitako ohiko errentamenduak.

Kategoria berri horien oinarria da errentariari babes-neurriak ematea, errentamenduaren xedea denean gizabana-koaren eta horren familiaren etxebizitza-beharrizana asetzea, ez, ostera, beste beharrizan ekonomiko, aisiazkoak edo administratiboak ase behar diren kasuetan.

Horretarako, etxebizitza-erabileraz besteko errentamenduetan, legeak alderdien arteko itun askearen menpe utzi ditu kontratuaren osagai guztiak. Gisa bertsuan, itun askearen arauketa ordezkoa eratu da, eta horrek ahalbidetzen du Kode Zibilaren araubidera jotzea ere.

Horrela, errentatzailearen eta errentariaren ageriko borondatea osatzeko, eta ordezko izaerarekin, arautu dira, artatze-eta obra-betebeharren eraentza, lehenespenez eskuratzeko eskubidea, intsuldatze-eskubidea eta *mortis causa* subrogazioak; hala ere, halakoxeak dituzte, soil-soilean, jardueran diharduten errentariaren ezkontideak eta seme-alabek.

Arauaketa honi berrikuntza bat erantsi zaio: errentariak kalte-ordaina jaso-

arrendatario a ser indemnizado cuando, queriendo continuar con el arrendamiento, deba abandonar el local por el transcurso del plazo previsto, siempre que de alguna forma el arrendador o un nuevo arrendatario se pudiesen beneficiar de la clientela obtenida por el antiguo arrendatario, o alternativamente, de los gastos de traslado y de los perjuicios derivados del mismo, cuando el arrendatario se vea obligado a trasladar su actividad.

4

La fianza arrendaticia mantiene su carácter obligatorio, tanto en vivienda como en uso distinto, fijándose su cuantía en una o dos mensualidades de renta, según sea arrendamiento de vivienda o de uso distinto. Al mismo tiempo se permite a las Comunidades Autónomas con competencias en materia de vivienda que regulen su depósito obligatorio en favor de la propia Comunidad, ya que los rendimientos generados por estos fondos se han revelado como una importante fuente de financiación de las políticas autonómicas de vivienda, que se considera debe de mantenerse.

5

En la regulación de los procesos arrendaticios se establece que la competencia para conocer de las controversias corresponde, en todo caso, al Juez de Primera Instancia del lugar donde esté sita la finca urbana, excluyendo la

tzeko eskubidea du, errentamendupean jarraitu nahi izan arren, lokala bertan behera utzi behar badu ezarritako epea igarotzeagatik, baldin eta errentatzaileak edo errentari berri batek onura ateratzen badu aurreko errentariak lortutako bezeriaren ondorioz, edo, bestela, errentaria behartuta badago bere jarduerara lekualdatzera, lekualdaketa-gastuen eta horretatik sortutako kalteen ondorioz.

4

